



## Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa. Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak.

### I. Aurrekariak

Erakunde honek etengabeko kezka izan du bakarrik dauden atzerritar adingabeen egoerari buruz, adingabe horiek gure autonomia erkidegora iristen eta abegia egiten hasi zitzaientetik. Haien egoera aztertzeke txosten berezi bi egin ditugu; haietako bat berariazkoa da, *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* (2005) eta besteak adingabeen egoera eta premia bereziki zailei heldu zien, *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* (2011). Txosten bietan gure autonomia erkidegoko gizarte, administrazio eta lege testuinguruan duten egoera aztertu da, eta gomendioak egin zaizkio herri-administrazioei.

Gomendio orokor honen bidez, talde jakin bati (azken urteotan haren kezak jaso baititugu) erreparatu diogu, gure ustez adingabe/gazte horien arreta eta gizarteratzeko funtsezkoak diren hiru unetan: (1) parte hartzen duten herri-administrazioek haiek aurkitu eta abegi egiteko unea, (2) adindunak direla xedatzen duen fiskaltzaren dekretuan oinarrituta foru aldundiek egoitzako abegia edota tutoretza eteteko unea eta (3) babes baliabideetatik irtendakoan behar den lagun egitea edo bideratzea.

Atzerritar adingabe/gazte horien adina zehazteko arazoak herritarrentzako defentsa bulegoen arreta bizia jaso du. Besteak beste, honakoak aipatu behar ditugu: [“Herriaren defentsarako erakundeen adierazpena, herri administrazioek bakarrik dauden adin txikikoekiko duten erantzukizunari buruzkoa”](#) (2006), Herritarren Defendatzailearen [¿Menores o adultos? procedimientos para determinar la edad](#) (2011) txosten berezia, Síndic de Greuges-en [“Resolución sobre el proceso de determinación de la edad de los menores extranjeros no acompañados”](#) ebazpena, eta Arartekoak arestian aipatu txostenetan gaiari buruz egindako gomendioak<sup>1</sup>.

Gomendio honetan ez diogu berariaz helduko adina zehazteari, herritarrentzako defentsa bulegoek azterketa sakonak eta arestian aipatu gomendioak egin dituztelako haiei buruz; aitzitik, abegi prozesu osoan eta zaintza, tutoretza edota egoitza abegia eteterakoan bete behar diren **bermeei** eta prozesu bietan dauden premia eta arazoei helduko diegu. Bestalde, adingabe/gazte horiek geratzen diren egoera zaila azpimarratu nahi dugu, adingabeak direla dioten agiri baliogarriak edukita, Fiskaltzak adina zehazteko ateratako dekretua dela-eta tutoretza eteten zaienean. Halaber, babes baliabidetik irten ondoren lagun egiteko edota bideratzeko premia ere azpimarratu nahi dugu.

Hortaz, aplikazio eremu subjektiboa 18 urtez azpikoak direla adierazi duten pertsonak dira, agirik ez dutenean edo, agiriak izan arren, euren ezaugarri fisikoak direla-eta edo dauzkaten agirik baliorik ez dutelako, adina zehazteko egindako azterketek adindunak direla ondorioztatzen dutenean. Adingabe/gazte horiek beste

---

<sup>1</sup> [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)



herrietako naziotasuna dute, eta, legez edo usadio eta ohituren arabera, heldu arduradun baten zaintzapean ez dauden heinean, euren ardura duen pertsona heldurik gabe iristen dira gure lurraldea.

Adingabe/gazte horiek zenbait herri-administrazioen arreta jasotzen dute eta, beraz, hartutako erabakietan **erakundeen arteko koordinazioa** behar da. Euren gaztetasunagatik egoera ahulean daude eta adingabeak izan daitezke. Hortaz, haien eskubideak babesteko bermeak ezarri behar dira, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren arabera.

Zentzu horretan, abegirako prozesuak adingabeari dagokiona behar luke, **adingabeak izateko presuntzioa** dagoelako<sup>2</sup>, Fiskaltzak adindunak direla erabaki arte, behintzat.

Aipatu konbentzioa haurren eta nerabe adingabeen oinarrizko eskubideak sustatzen eta babesten dituen nazioarteko tresna juridikoa da. Konbentzioran jasotako printzipio garrantzitsuenetako baten arabera, *"adingabeei eragiten dieten jarduketa eta ekintza orotan adingabearen interes gorenak nagusitu behar du"* (HEIko 3. art.), *naziotasunagatik* (HEIko 2. art.) *edo administrazio irregulartasunengatik bereizkeriarik egon gabe* (HEIko 4. art.). Baita hurrek bere iritzia emateko eskubidea (HIEko 12. art.), edo adingabeen babeserako eskubidea (HEIko 20. art.) ere.

Haurren Arreta eta Babesari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 euskal Legeak ere arestiko eskubideak jaso eta haiek bermatzeko arreta printzipioak xedatu ditu, baita jarduketa publikoa lotzeko erakunde eta eskumen esparrua ere.

---

<sup>2</sup> Adingabetasunaren presuntzioa honakoek babesten dute: atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 35.3 artikulua; Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordearen bakarrik eta euren jatorrizko herritik at euren familiagandik bereizita dauden adingabeentzako tratuari buruzko 6. Ohar Orokorreko (2005) 31.1 arauak; Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bakarrik dauden adingabe atzerritar etorkinen trataera juridikoari buruzko 6/2004 Aginduak; eta 3/2001 eta 2/2006 Zirkularrek. Presuntzio horrek garrantzi berezia dauka nazioarteko babes premien zantzuak dauden kasuetan; izan ere, egoera horretan dauden adingabeek zailtasun handiak izan ohi dituzte euren herrietatik irteteko eta, beraz, agiri faltsuak erabiltzera edo pertsonen trafiko sareetara jotzera behartuta egon daitezke. Bereziki, kontuan hartu behar da gizakien trafikoaren zantzuak egonez gero, Europako Kontseiluaren gizakien trafikoaren aurkako borrokari buruzko Ituneko (Varsovia, 2005) 10.3 artikulua xedatzen duela, biktimaren adinari buruzko ziurtasunik ez badago, eta adingabea dela pentsatzeko arrazoiak badaude, halakotzat joko dela eta berariazko babes neurriak emango zaizkiola, adina egiaztatu ahal izan arte. Halaber, Europako Parlamentuaren eta 2011ko apirilaren 5eko Kontseiluaren gizakien trafikoaren prebenitzeari eta borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzko eta Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru-erabakia ordeztzeko 2011/36/UE Zuzentarauko eta 13.2 artikuluan honakoa xedatu da: *"Gizakien trafikoaren biktima izandako pertsona baten adina zalantzarria denean eta adingabea dela uste izateko arrazoiak daudenean, Estatu kideek bermatuko dute halakotzat joko dela, berehala 14 eta 15. artikuluen arabera arreta, laguntza eta babesa jaso ahal dezan"*.



Beraz, honako kontuak aztertuko ditugu:

1. Foru aldundietako babes zerbitzuen, Eusko Jaurlaritzako sailen, polizien, gobernuaren ordezkariordetzen, fiskaltzen eta, hala badagokio, asilo eta babes bulegoaren arteko beharrezko **koordinazioaren eta lankidetzaren** garrantzia pertsona horiek aurkitu eta haiei abegi egiteko prozesuan.
2. Abegian eta, Fiskaltzak adindunak direla ebazteko emandako dekretuaren ondoren, berehalako arreta, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza etendakoan, dagozkien **bermeak eta eskubideak** betetzea.
3. Adingabe/gazte horiek babes baliabideetatik irteten direnean **gizarte lagun egite edota bideratze** egokiak duen garrantzia.

Bakarrik dauden atzerritar adingabeen migrazioak garrantzia izan du gure erkidegoan. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan hirugarren tokian dago bakarrik dauden atzerritar adingabeei abegi egin dieten autonomia erkidegoen artean 2006. urtean, eta laugarren tokian 2007an<sup>3</sup> (herritar helduei dagokienez, ordea, 2006an hamaikagarren zegoen autonomia erkidegoen artean). Euskadi sartzeko eta finkatzeko toki bihurtu zen adingabe horientzat. Gehien bat 15 urtez gorako mutil nerabeak dira<sup>4</sup>. Azken urteotan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan haien kopurua murriztu egin da, [Arartekoaren Haur eta Nerabeen Bulegoaren urteko txostenetan](#) jaso denez.

## II. Jarduteko protokoloek pertsona horien bermeak eta eskubideak jaso beharra

Esku hartzen duten eragile guztien arteko koordinazioa egotearen garrantzia argi geratu da eta errealitatea da hiru lurralde historikoetan; izan ere, lurralde eremu bakoitzean, zenbait protokolo adostu dituzte. Fiskaltzaren zenbait erakundek eta legedi autonomikoak agerian utzi dute premia hori. 2005. urtean, Haurtzaroaren Behatokiaren Lan Taldeak (Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioari atxikita) atzerritar adingabeentzako protokolo bat erabaki zuen eta duela gutxiago, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia, 2/2009 Lege Organikoak erreformatu ondoren, onartzeko apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuko 190. artikulua, Bakarrik dauden Atzerritar Adingabeentzako Esparru Protokolo bat ezartzea aurreikusi du, zirikusia duten erakunde eta administrazio guztien esku-hartzea koordinatzeko, adingabea edo ustezko adingabea aurkitzen denetik, hura identifikatu, haren adina zehaztu, adingabeak babesteko zerbitzu publikoaren esku jarri eta dokumentatu arte.

<sup>3</sup> "Sueños de bolsillo. Menores migrantes no acompañados en el País Vasco" (2009) Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

<sup>4</sup> Datu hori dela-eta, testuan mutil nerabeez baino ez dugu hitz egin.



Gure erkidegoan gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza abegirako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak, seigarren xedapen gehigarrian, xedatzen du bakarrik dauden atzerritar adingabeentzako larrialdiko abegian jarduteko protokolo komuna prestatu behar dela: *“Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, beren Sail eskudunen bitartez, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren premiazko harrerarako jardun-protokolo komun bat adostuko dute esku hartzen duten gainerako erakundeekin, fiskaltzekin eta segurtasun-indarrekin bereziki. Protokolo hori Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan esku hartzeko baldintzak, pertsona horien eskubideen errespetua bermatuko duten baldintzak, aplikatzeko izango da”.*

Arartekoaren [Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak](#) txostenean honako gomendioa egin genuen (19): *“Bakarrik dauden atzerriko adingabeen harrerarako protokolo komun bat izatea gure Erkidegoko hiru lurralde historikoetarako.”*

Gomendio honetan berriz azpimarratu dugu protokolo hori Euskal Herriko Autonomia Erkidego osoan **komuna** izateak duen garrantzia, lurralde historiko bakoitzean zerbitzuen kokapenaren arabera behar diren aldaerekin, **baina irizpide, berme eta eskubide berberak sartuz**. Zentzu horretan, eskubideen aldeko erakunde bati dagokion bezala, oinarrizko berme batzuk aurreikusi beharri erreparratu diogu batez ere.

Oinarrizko berme horiek fase guztietan sartu behar dira adingabea dela dioen pertsona bat atzematen denetik, arreta eta babesa behar dituen adingabea izan daitekeelako.

Adinari buruzko arazoizko zalantzak badaude eta adingabeek gizarte arreta premia behar dutenez gero, zerikusia duten erakundeen (polizia kidegoak, fiskaltza, Eusko Jaurlaritza, Aldundiak...) elkarlana eta koordinazioa behar dira, adina bizkor, zehaztasun ahalik eta handinez eta adingabeen bermeak eta eskubideak betetzehazteko. Adingabea/gaztea atzeman, abegi zentroetara eraman, adina zehaztu, tutoretza izapidetu eta egokia den kasuetan asiloa eskatzeko prozesuak azkarra eta malgua izan behar du.

Eusko Jaurlaritzak du, gizarte arazoei buruzko eskumena duen sailaren bidez, herri-administrazioetako organoen jarduketak koordinatzeko ardura, eta harena izan da esku hartzen duten beste organoekin batera -besteak beste, Eusko Jaurlaritzako beste sailak, foru aldundiak, fiskaltza, polizia kidegoak eta gobernuaren ordezkariordetzak- protokolo komuna prestatzen hasteko ekimena. Protokolo hori oso aurreratuta dago, baina ez da bukatu; **gomendagarria litzateke hura ahalik eta lasterren prestatzen amaitzea eta ezartzea**.

**II.1. Besteak beste, honako jarduketak burutu behar lirateke:**

**A. Babesgabetasuneko egoeran dagoen adingabe edo balizko adingabe bat dagoela atzematen den kasu guztietan, foru aldundietan adingabeak babesteko eskumena duten zerbitzuen esku jarri beharko da.**





**B.** Adina zehazteko probak egin aurretik, Bakarrik dauden Atzerritar Adingabeen Erregistroari egindako kontsultaren emaitzari itxaron behar litzaioke.

#### **A. Adingabeak babesteko eskumena duten zerbitzuen esku jartzea**

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 35. artikulua, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoak emandako idazketan, honakoa xedatu du 3. idatz.zatian: *"Estatuaren Segurtasun Kidego eta Indarrek adingabetasuna ziurtasunez ezarri ezin zaion agiririk gabeko atzerritar bat aurkituz gero, adingabeak babesteko eskumena duten zerbitzuek behar duen arreta emango diote berehala, adingabearen babes juridikoari buruzko legedian xedatutakoaren arabera, eta egitatea Fiskaltzari jakinaraziko zaio berehala. Fiskaltzak haren adina zehazteko aginduko du, eta horretarako dagokien osasun erakundeek lagunduko dute eta, lehentasunez, behar diren azterketak egingo dituzte".*

Adingabe/gazteei adingabeak babesteko baliabide batean egingo zaie abegi. Foru aldundiak **entitaterik egokienak dira** polizia kidego batek edo beste erakunde edo gizarte eragile batek adingabe bat edo adingabea dela dioten pertsona bat aurkitu eta atzematen duenean, edo pertsona horrek zuzenean arreta eta babes eskatzen duenean, behar diren izapideak egiteko. Erakunde horiek eraman behar lukete adingabea, atzeman duen polizia kidegoak hatz-markak eta argazkiak hartu ez baditu eta Polizia Nazionaleko Atzerritarren Sailari igorri ez badikio, identifikazio oharra egiteko. Informazio hori funtsezkoa da adingabea Bakarrik dauden Atzerritar Adingabeen Erregistro Nagusian erregistratuta dagoenetz jakite eta, ez badago, hura inskribatzeko eta behar diren datu guztiak sartzeko.

Aipatu arauaren aplikazioa, adingabearen interes gorena aintzat hartzea eta adingabetasunaren presuntzioa direla-eta, adingabe/gazte horiek babes baliabide batera eraman behar dira adina zehazteko probak egiten diren bitartean<sup>5</sup>. Baliabide horiek sartzeko zenbait ibilbide daukate, adingabeen premien edota adinaren arabera, eta ohikoenak lehen abegiko baliabideak eta larrialdiko baliabideak dira.

Adingabe/gazteek **berehalako gizarte arreta** behar izaten dute; halaber, abegi prozesu osoan burutuko diren jarduketari, euren eskubideei<sup>6</sup> eta dauden egoeraren

<sup>5</sup> Europako Parlamentuko Batzordeari eta Kontseiluari egindako Bakarrik dauden adingabeei buruzko 2010-2014 ekintza planari buruzko azken jakinarazpenean (COM 2010), honakoa adierazi zen: *"adina ebaluatzeko zenbait prozedura eta teknika daude, eta haien fidagarritasuna eta proportzionaltasuna kezkatzeko zioa izan ohi dira. Errekurrizteko aukera ez da beti bermatzen. Adituek azpimarratu dutenez, tutoreak aurrean egon behar luke prozeduraren etapa guztietan eta adingabeak halakotzat tratatu behar lirateke ez direla frogatu arte".*

<sup>6</sup> Hasierako elkarrizketa horretan errefuxiatuaren estatutua edo nazioarteko babes jaso lezakeen pertsona den jakin daiteke. Kontuan izan behar da asilo eskaera aurkezteko hilabeteko epea dagoela, Espainian sartzan den unetik edo, edonola ere, jazarpen edo kalte larrien arrazoizko beldurra justifikatzen duten gertakariak gertatzen direnetik. Bestalde, asilorako eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legeko 48. artikulua arabera: *"Bakarrik dauden adingabeek nazioarteko babes eskatzen*



esanahi eta irismenari, jarraituko den prozedura osoari -zehazki, adina zehazteko prozedurarik egingo den-, esku hartuko duten organismoei, ekar ditzakeen erabaki eta ondorioei, egin ditzakeen errekursoei, ofiziozko txandako abokatu bat izendatzeko eskatzeko aukerari eta doako justiziarako eskubideari<sup>7</sup> buruzko informazio egokia jaso behar dute. Informazioa idatziz ere jaso behar litzateke, hizkuntza ulergarrian eta haren heldutasunari dagokion hizkeran. Ezin da informatua eta entzuna izateko eskubidea behar bezala bermatu adina zehazteko prozesu osoan lagun egiterik ez badago, eta gomendagarria litzateke lagun egite hori foru aldundien hezitzaile taldeak egitea. Langile horiek prestakuntza egokia izan behar dute, entzuteko eta haien historiari, ibilbideari, egoerari eta iritziei dagokien balioa emateko gaitasuna izan dezaten.

Herritarren defendatzailearen *¿Menores o Adultos? Procedimientos para determinar la edad* txostenean jaso denez<sup>8</sup>: *"Egindako ikerketek erakutsi dutenez, polizia zerbitzuek ez diete interesdunei prozeduraren, haren irismenaren eta egingo zaizkien proben izaeraren berririk ematen. Halaber, ez da adierazi orain interesdunei proba horiek egiteko baimena eskatzen zaien"*.

Berehalako arreta horrekin batera, adina zehazteko prozedura abiarazi behar da.

Bestalde, adina zehazteko azterketa medikuak egiteko **epe bat igaro** behar da. zenbait osasun zerbitzutan egin behar diren hainbat proba eta azterketa direlako. Adinaren kalkulu medikua prozedura konplexua da eta egiteko behar beste denbora eman behar zaio. Probak<sup>9</sup> honakoak dira: anamnesia (elkarrizketa bat; bertan,

---

*badute, adingabeen babesaren eskumena duten zerbitzuetara igorriko dira eta egitatea Fiskaltzari jakinaraziko zaio"*.

<sup>7</sup> Bakarrik dauden adingabeentzako ekintza planean, bestalde, adingabeei euren eskubideen berri eta indarrean dauden erreklamazio eta ikuskatze mekanismoak eskuratzeko aukera eman behar litzaikeela ere adierazi da.

<sup>8</sup> 171. or.

<sup>9</sup> Azterketa horiek honakoak bete behar lituzkete: *"Recomendaciones sobre métodos de estimación forense de la edad de los menores extranjeros no acompañados. Documento de consenso de buenas prácticas entre los institutos de Medicina Legal de España"*. Revista Española de Medicina Legal. 37. lib. (1. zk., 16-23 or.) Garamendi, P.M; Bañon, R.; Pujol, A; te al. (2011). Baita Bakarrik dauden Atzerritar Adingabeen Adinaren Kalkulu Forenseari buruzko Lan Taldearen ondorioak (2011) ere: *"Conclusiones de la Jornada de Trabajo sobre Determinación Forense de la Edad de los Menores Extranjeros No Acompañados. Documento de consenso de Buenas Prácticas entre los Institutos de Medicina Legal de España"*. Revista Española de Medicina Legal 37. lib. (1. zk.) 5-6 or. Gomendio horiek Estatuko auzitegi-medikuntzako erakundeetako zuzendarien ordezkaritza zabal batek egin zituen.

Haurren Eskubideen Batzordearen bakarrik eta euren jatorrizko herritik kanpo familiagandik bananduta dauden adingabeentzako tratuari buruzko 6. Ohar Orokorra (2005) ere aipatu behar dugu: *"Adina kalkulatzeko neurriek, pertsonaren itxura fisikoa ez ezik, haren heldutasun psikologikoa ere hartu behar dute aintzat. Adina zehazteko prozeduran irizpide zientifikoak, segurtasuna eta inpartzialtasuna erabili beharko dira, adingabearen interesa eta genero irizpideak aintzat hartu beharko dira, haren osotasun fisikoa bortxatzeko arrisku oro saihestu beharko da, haren giza duintasuna behar bezala errespetatu beharko da eta, zalantza egonez gero, zalantza-benefizioa emango zaio"*.





pertsonen aurrekari pertsonalak, garapen etapen berreraikitzea, lehenagoko gaixotasunen kontakizun kronologikoa, ordezeko haginaren historia, maila sozioekonomikoa, interesa izan dezaketen pertsonaren eta familiaren aurrekariak... biltzen dira), gorputz azterketa orokorra (neurketa antropometrikoa, sexu heldutasunaren zantzuen azterketa eta patologien identifikazioa), eskumuturraren eta eskuaren erradiografia, aho-barrunbearen azterketa eta haginaren erradiografia azterketa, lepauztaiaren mutur proximalaren erradiografia azterketa eta lepauztaiaren mutur proximalaren ordenagailuzko tomografiaren azterketa.

Esan dugunez, denbora behar da azterketan zorrotasun eta argitasunez egin ahal izateko, eta haien emaitza aztertu eta baloratzeko; hori dela-eta, tarte horretan adingabeek arreta egokia izan behar dute<sup>10</sup>, eta gure ustez babes baliabideek eman behar diete.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren bakarrik dauden atzerritar adingabeen adina kalkulatzeko espedienteen gaineko zenbait alderdiri buruzko 1/2009 Kontsultak honakoa jaso zuen: *"ustezko adingabearen adina kalkulatzeko osasun zentro batera eramán eta bertan geratzea askatasunaz gabetzea da, Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 20.2 artikulukoaren antzekoa, eta Espainiako Konstituzioko 17. artikuluko bermeen mende dago, Auzitegi Konstituzionalaren azaroaren 18ko 341/1993 eta maiatzaren 21eko 86/1996 Epaietan xedatutako interpretazioaren arabera, eta, beraz, ez da beharrik gabe luzatu behar"*. Ildo beretik, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2001 Instrukzioaren arabera, adingabea osasun zentrorra eramatea eta azterketak egin bitartean bertan geratzea askatasunaz gabetzea da eta, beraz, *"ahalik eta gutxien luzatu behar da"*. Era berean, adingabeei eta atzerritarrei buruz espezializatutako fiskalen topaketako 4. Ondorioak -Madril, 2010eko apirilaren 20a-, honakoa adierazi zuen, besteak beste: *"Ez da adina zehazteko dekreturik emango osasun txosten nahikoa izan gabe. Bestela, azterketak egin, zabaldu edo argitu arte itxaron beharko da, bitartean ustezko adingabea adingabeak babesteko zerbitzuen zaintzapean geratuko delarik eta, ondore horietarako, fiskalak dagokion gutuna igorri beharko du"*.

Bestalde, polizia bulegoek gela bereziak eta adingabeentzako egokiak eduki behar lituzkete (Adingabearen Erantzukizun Penalaren Lege Organikoko 17. artikulua)

---

<sup>10</sup> Azterketak egiteko zenbait espezialistak parte hartzen dute, hala nola erradiodiagnostikoko eta estomatologiako mediku espezialistak. Bestalde, adina kalkulatzeko azterketen emaitzen ebaluazio orokorra egin behar litzateke, auzitegi-mediku edo auzitegi-medikuntzako mediku espezialista baten eta gomendatutako azterketa metodo osagarrien osoko interpretazioko berariazko prestakuntza duen auzi-mediku baten artean koordinatuta, eta horrek epe bat igarotzea eskatzen du. Herritarren defendatzaileak gomendio bat egin zuen ebaluazio horiek zorrotasun handiagoa emateko: *"2011ko irailaren 23ko Gomendioa, Justizia Ministerioari egina, adina kalkulatzeko zerbitzu espezializatua ezar dadin; zerbitzu hark gai izan behar luke behar diren probak eta azterketak bizkortasunez, zentralizatuta eta protokolo komunetan oinarrituta egiteko. Halaber, erakundeen arteko protokolo bat sinatu behar litzateke, lurralde nazionalako auzitegi-medikuntzako edozein erakundek edo zerbitzuek adina zehazteko egindako auzitegiko azterketak eta txostenak elkartrukatu ahal izateko, adina kalkulatzeko azterketa egin nahi zaion pertsonari buruz egon litezkeen aurrekariak eman ahal izateko"*.



xedatu duenez) eta, era berean, atzerritar adingabea izanik, Polizia Nazionalak (atzerritarrei buruzko eskumena dauka berak) adingabearen nortasunari buruzko argibideak lortzera mugatu behar lituzke bere elkarrizketak.

Ertzaintzaren zein udaltzaingoan bulegoetara egindako bisitetan, orokorrean, adindunengandik bereizitako berriazko zaintza gelarik ez dagoela egiaztatu du erakunde honek.

**Alegia, Arartekoaren iritziz, adingabe/gazteak egonaldi ahalik eta laburrena egin behar luke osasun zentroetan eta polizia bulegoetan, eta gainontzeko denboran babes baliabidean egon behar luke.**

Bestalde, jarduketa guztien koordinazioa eraginkorragoa da horretarako baliabide egokiak -zehazki, adingabe/gazte horien premiei erantzun diezaieketen hezitzaileak-dituen babes erakundeak burutzen badu, eta hark eraman behar lituzke Polizia Nazionalaren bulegoetara, beharrezkoa denean, haien berri eman eta identifikatzeko, osasun zerbitzuetara, Fiskaltzara edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundera. Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordearen euren jatorrizko herritik kanpo bakarrik eta euren familiagandik bananduta dauden adingabeentzako tratuari buruzko 6. Ohar Orokorrean (2005), adingabearen interesei eragingo dien administrazio prozesu edo eginbideren bat hasiz gero tutore edo legezko ordezkari bat izendatzeko garrantzia aipatu zen. Halaber, hasierako elkarrizketa adingabeak uler dezakeen hizkuntzan egitearen garrantzia azpimarratu zuen, bertan haren ahultasuneko egoeraren alderdi bereziak edo nazioarteko babes premiak, edo trafikoaren biktima den ebaluatu ahal izateko, arestian esan dugunez. Bestalde, bakarrik dagoen etorkina izateagatik askatasunaz gabetzea galarazi zuen eta behar diren prozesuak bizkortu beharra xedatu, bakarrik edo euren familiagandik bananduta dauden adingabeak aske geratu eta beste ostatu erakunde batzuetan jar daitezten.

## **B. Bakarrik dauden atzerritar adingabeen erregistroa kontsultatzea**

Erregistro hori Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia, 2/2009 Lege Organikoak aldatu ondoren, onartzeko apirilaren 20ko 557/2001 Errege Dekretuko 215. artikuluan arautu da.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren doktrinak, uztailaren 27ko 2/2006 Gutunaren bidez<sup>11</sup>, 1/2009 Kontsultak<sup>12</sup>, eta aipatu "Recomendaciones sobre métodos de

<sup>11</sup> "Fiskalek zaindu behar dute azterketak egiteko erabakia -posible den heinean- diharduen indarrak EDko 111. artikuluan araututako Atzerritar Adingabeen Erregistroan egon litezkeen ustezko adingabeari buruzko aurrekariak kontsultatu ondoren hartuko dela. Erregistro horretan adina kalkulatzeko osasun azterketaren emaitza jaso behar da (bizitzako f letra). Beraz, Erregistroa kontsultatutakoan azterketa egin zaiola ageri bada, ez da eskatutako azterketa berriz egin behar, beste erabaki bat aholkatzen duten salbuespeneko arrazoirik ezean".





estimación forense de la edad de los menores extranjeros no acompañados. Documento de Consenso de Buenas Prácticas entre los Institutos de Medicina Legal de España” agiriak, gogorarazi dute **azterketa horiek egin aurretik, gazteari lehenago azterketa berberak egin ez zaizkiola berresteko**, erregistro hori kontsultatzea komeni dela. Auzitegi Medikuntzako Erakundeen aipatu agirian auzi-medikuek, mediku-irizpenen xede hutsetarako, bakarrik dauden adingabeei gehiegizko erradiazio ionizatzaileak jasanarazteko aukeragatik duten kezka islatu da eta, hura saihesteko, erregistroak (bai Agiririk gabeko Adingabeen Erregistro Nagusia, bai Auzitegi Medikuntzako Erakundeen erregistroak) kontsultatzea ez ezik, erradiologia azterketak ahalik eta erradiazio ionizatzaile txikiena igortzeko baldintza teknikoetan egotea ere gomendatu dute, baita adingabearen erradiobabeserako neurriak bermatzea eta saio bakoitzean haien eraginpean behin eta berriz jartzea saihestea ere.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2009 Kontsultak, azterketa horiek egiteak osotasun fisikorako eskubide konstituzionalari eragiten diola xedatu bazuen ere, gorputz esku-hartze arina dela eta titularraren baimena baino behar ez duela adierazi zuen; hortaz, Fiskaltzak erabaki litzake zuzenean, eta interesdunak haiek egiteko baimena ematen duen heinean egin daitezke. Edonola ere, osasuneko langileek egin behar dituzte eta pertsonaren duintasuna errespetatuz.

Arestiko kontsultak gogorarazi zuen **kasu bakoitzean haiek burutzea egokia den baloratzea komeni dela, inguruabarrak baloratuz eta gazte horiei kalterik txikiena egingo dien irtenbidea bilatuz**. Halaber, gogorazi zuenez, adina kalkulatzeko prozedurak proportzionaltasunaren printzipioa bete behar du beti, prozesuari ekitea aholkatzen duten inguruabarrak baloratzerakoan; horrek esan nahi du, jurisprudenzia konstituzionalera joz (AKren 66/1995 eta 55/1996 Epaiak), funtsezko eskubide bat murriztuko duen neurri batek proportzionaltasuna gainditzen duen egiaztatzeko, betekizun eta baldintza jakin batzuk betetzen dituen egiaztatu behar dela; zehazki, neurria nahi den helburua lortzeko egokia den (egokitasuna) baloratu behar da; halaber, beharrezkoa den, xede bera eraginkortasun berberaz lortzeko beste neurri xamurragorik ez dagoelako; alegia, hura ezinbestekoa den, proposatutako xedea lortzeko gaitasun bera izanik hain kaltegarriak ez diren beste batzuk ez edukitzeagatik (premiazkotasuna); eta, azkenik, neurria neurritsua edo orekatua den aztertu behar da, bertatik interes orokorarentzat eratorritako onurak edo abantailak gatazkan leudekeen beste ondasunen gaineko kalteak baino gehiago izateagatik (proportzionaltasuna zentzu hertsian), bestela esanda, *"esku sartzeak dakartzan banakako interesen sakrifizioa babestu nahi den interes publikoaren garrantziaren arrazoizko eta proportziosko erlazioan dagoen"*. Printzipio horietan oinarrituta, gero proposatuko dugunez, osasun azterketak egin aurretik beste bide batzuetara jo behar litzateke, baina edonola ere, Bakarrik dauden atzerritar adingabeen erregistroari egindako kontsultaren emaitzari itxaron behar litzaioke.

---

<sup>12</sup> Azterketaren beharra baloratzeko, ahal den neurrian, fiskal jaun-andereek, alderdi horri buruz erabaki aurretik, EDko 111. artikulua arautzen duen bakarrik dauden atzerritar adingabeen erregistroan adingabe berari buruzko erregistrorik dagoen egiaztatu behar dute.



Bakarrik dauden adingabeen erregistroaren koordinazioari buruzko martxoaren 29ko 1/2012 instrukzioan ere irizpide berbera ezarri da: *"Egoera horretan, erregistroaren informazio osorik ez badago eta ustezko adingabearen hatz-markak egiaztatzeko berehalako sistemarik ezarri ez bada -halako kasuetan hutsik egiten ez duen identifikazio metodoa-, epe nolabait laburrean hura egin zaion pertsonari adina kalkulatzeko erradiologia azterketa egiteko agindu dezake Fiskalak. Hori eginda -kasu batzuetan pertsona horren osasunarentzako balizko arriskua sor daitekeela kontuan izanda-, adina kalkulatzeko dekretu kontraesankorrak eta idazkun pertsonal bikoiztuak eragin daitezke".* Instrukzio horrek erregistroaren funtzionamendua hobetzeko neurriak ezarri ditu eta atzerritarren koordinatzailea den salako fiskalari dagozkion eginkizunak adierazi ditu, euren lurralde eremuetan atzerritarrei buruzko fiskal ordezkarien parte hartzearekin. Fiskaltzari esleitutako eginkizun berria dela-eta, jarduketa eta antolakuntza arau bateratu batzuk ezarri behar dira, koordinazio hori eraginkorra izatea lortzeko, hots, atzerritar adingabeari buruzko informazioa erregistrora egiatan iristen dela eta hura ahalik eta eguneratu, oso eta zehatzena dela kontrolatzeko, datu garrantzitsuak gordetzen dituzten erakundeen arteko elkarlana bermatuz; halaber, erregistroetako bikoiztasunak saihesteko behar diren jarduketak egin behar dira; edo, bestela, lurraldeko fiskalek, euren eginkizunak betez, informazioa eskuratu eta erabiltzeari buruz egin ditzaketan kontsultak ebatzi behar ditu, besteak beste. Halaber, kontuan izan behar da poliziaren barne araudi berria egin dela BDAAen Erregistroaren kudeaketari buruz, antolakuntzari zein teknologiarri dagokienez. Horrekin guztiarekin, Bakarrik dauden atzerritar adingabeen erregistroak askoz eraginkorragoa izan behar luke. Erregistro horren funtzionamendu egokiak eta lehenago hura kontsultatzeak adina zehazteko azterketak errepikatzea saihestuko luke, adingabe/gazteak autonomia erkidego batetik bestera mugitzen diren kasuetan.

**II.2. Jarraian, Fiskaltzaren eginkizuna eta eskumenak** aipatuko ditugu, abegi egiteko eta zaintza edo tutoretza eteteko prozedura ulertzeko duen garrantziagatik.

Burututako jarduketak ikusita, eta behar diren kontsultak egin ondoren, Fiskaltzak baimentzen du adina zehazteko azterketak egitea. Bakarrik dagoen pertsona bat aurkitu dela eta adingabea den zalantza egiten dela jakin behar du. Informazio hori izandakoan, prozesu aurreko eginbideei ekin behar die, Fiskaltzaren Estatutu Organikoko (FEO) 5. artikuluko xedapenen arabera. Izan ere, azken paragrafoan (FEO arautzen duen maiatzaren 26ko 14/2003 Legearen idazketaren arabera) honakoa xedatzen du: *"halaber, fiskalak prozesu aurreko eginbideak hasi ahalko ditu ordenamendu juridikoak eman dizkion gainerako eginkizunak betetzea errazteko".*

Aipatu dekretuak adingabearen adina zehaztu behar du, gutxi gorabehera eta dauzkan froga elementuen arabera. Dekretu horren ondorioak **gutziz behin-behinekoak** izango dira, eta bertan jaso behar litzateke hori, ez baita pertsona horren adinari buruzko behin betiko ebazpena, beste prozedura batzuk egiterakoan azterketa osagarriak egin dakizkiokeelako. Hala, osasun azterketa zehatzagoak edo haren adinari buruzko beste ikerketa egintza batzuk egin litezke.



Aipatu atzerritarren eskubide eta betebeharrei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikoko 35. artikulua eta hura garatzeko arautegia onartzeko apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuko 190.1 artikulua, Fiskaltzaren esku-hartzea aurreikusi dute, 190.1 art.: *“agirik gabeko atzerritar baten adingabetasuna ziurtasunez ezartzerik ez badago, Estatuaren Segurtasun Kidego eta Indarrek, inguruabar horren berri edo ustezko adingabea Espainian aurkitu orduko, adingabeak babesteko autonomia zerbitzuei emango diete horren berri, hala badagokio, adingabearen babes juridikoaren legediak xedatutakoaren arabera behar duen berehalako arreta eman diezaioten. Lehenbailehen, Fiskaltzari emango zaio horren berri, eta hark, ahalik eta lasterren, haren adina zehazteko aginduko du; horretarako, dagokien osasun erakundeek lagundu beharko dute eta, lehentasunez eta premiaz, behar diren azterketak egingo dituzte”*. Horretarako, Fiskaltzak auzitegi-medikuntzako zerbitzura edo auzitegi-medikuntzako espezialistagana eramatea erabakitzen du, haren adin biologikoa kalkulatu ahal izateko osasun azterketak egitea egokia den ebaluatzeke eta kasu bakoitzean diagnostikorako erabili beharreko metodoak adierazteko. Garrantzitsua da gogoratzea, epaileek esku-hartzerik ezean, adina zehazteko osasun azterketak Fiskaltzak hala erabaki badu baino ezin egin direla. Lehenago, adingabe/gazteari berehala eta era ulergarrian bere egoeraren eta eskubideen berri eman beharko zaio, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2009 Kontsultan jaso legez.

Arestian adierazi dugunez, Auzitegi Medikuntzako Erakundeek zenbait gomendio egin dute azterketak egiteko, eta haiei lotzen gataizkie, gure ustez adingabe/gazte horien eskubideak errespetatzeko garrantzi izugarria dutelako<sup>13</sup>.

Adingabetasuna adierazten duten nortasun agiriak daudenean ere egiten dira azterketa horiek, agiri horien egiazkotasunari buruzko **arrazoizko zalantzak** badaude edo ezaugarri fisikoen arabera adinduna dela ematen badu. Fiskaltzek erabilitako irizpidea gazteak aurkeztutako agiri ororen aurrean hura nagusitzea da, organismo eskudun batek ere baliogabe jo ez badu ere<sup>14</sup>, adingabe/gaztearen itxura fisikoa dela-eta bertan jasotako edukari buruzko zalantzak badaude.

---

<sup>13</sup> Honakoak dira gomendio nagusiak: azterketak berriazko prestakuntza duten profesionalak egin behar dituzte eta egindako txostenek kalitatearen kontrol sistemaren bat izan behar dute; balorazioak Auzitegi Medikuntzako Erakundeko mediku adituek egin behar dituzte, eta behar beste denbora hartu behar da haiek egiteko; miaketak miatutako pertsonaren duintasuna eta segurtasuna bermatu beharko ditu, ustezko adingabearentzat ulergarria izan behar du eta berriaz baimendu behar du. Bestalde, azpimarratu dutenez, erabilitako metodoak errakuntza tarte handiak dauzka. Eta, beste kontu batzuen artean, bat datoz pertsona berrebaluatzea eta berresposizioa saihesteko garrantzian.

<sup>14</sup> Halako kasuetan, atzerritar bat atzeman, daukan pasaporte edo nortasun agirian haren adingabetasuna ageri, eta haren egiazkotasunari edo titulartasunari buruzko zalantzak badaude, agintaritzak judizialari jakinarazi behar litzaioke, prozedura penalaren esparruan, ustezko egilea adinduna ala adingabea den zehazteko behar diren azterketak egiteko agindu dezan, eta delitaren bat egin balu, berez, ezin litzaioke abiarazi 4/2000 Lege Organikoko 35. artikuluan xedatutako administrazio prozedura, ZKko 392. artikuluko arau hauste penala eginaren zantzuak daudelako.



Estatu eta autonomia defentsa bulegoen txostenetan faltsutasun zantzurik ez duen pasaporte dagoen kasuetan halako azterketak ez egitea gomendatu arren<sup>15</sup>, egun Estatuko Fiskaltza Nagusiaren irizpidea da azterketa horiek agiri pertsonalak baino fidagarriagoak direla ulertzea eta, hori dela-eta, haren adingabetasuna egia edo gezurra izan daitekeela pentsatzen da.

Komunitate zientifikoaren arabera hezur heldutasuna eta hagin mineralizazioa neurtuz adina kalkulatzeko teknikak errakuntza tarte handiak eduki arren gertatzen ari da hori dena. Egun, teknika horien bidez **ez dago pertsona baten adina zehaztasun osoz ezartzerik**, are gutxiago azterketa premiaz eta askotan halako ebaluazioak burutzeko ezinbesteko eragile batzuk, hala nola nutrizio gabeziak, gorputz jarduera, eguzki esposizioa edo beste eragile patologiko batzuk ezagutu gabe egiten denean. Azterketarako hautatutako metodoa zein ere den, haur edo nerabe baten adinaren ebaluazioak desbideratze handiak izan ditzake<sup>16</sup>, egun erabil daitezkeen hezur heldutasunaren erreferentzia tauletan jaso dituzten pertsonen jatorria eta inguruabarrak eta aztertzen ari den pertsonarenak oso bestelakoak dira eta adingabe/gaztearen adinaren ebaluazioaren **errakuntza tarte gutxi gorabehera 18 hilabetekoa da eta, beraz, zehaztasun falta handia dago** Europaz kanpoko herrietatik etorritako adingabeak direnean.

Izan ere, nazioartean erradiologia azterketaz besteko azterketa bideak identifikatzeko interes gero eta handiagoa ikusi da, baina eztabaida zabalik dago eta emaitzetan alde handiak daude, aztertutako herriaren arabera<sup>17</sup>.

Horregatik, itxura fisikoa baloratzerakoan adingabetasunari buruzko zalantzak **adingabearen alde** (favor minoris) egin behar luke, adina zehazteko azterketen errakuntza tarteak eta dagon eztabaida kontuan hartuta<sup>18</sup>.

---

<sup>15</sup> UNHCR-ACNURek eta Save the Children-ek (2006) ere irizpide bera daukate:

“Adingabeak bere adingabetasuna frogatzen duen agiri ofizialen bat aurkezten duenean, adinaren azterketa ez da egokia izango”

<sup>16</sup> Arraza Bazterkeria ezabatzeko Batzordeak, Espainiak aurkeztutako txostenaren azterketan (2011), Arraza Bazterkeria Ezabatzeko Ituneko 9. artikulua arabera, honakoa eskatu dio Estatuari: bakarrik dauden adingabeak heldu sailkatuak izan ez direla eta hurrei dagozkien neurriak dauzkatela bermatzeko, adina zehazteko metodoak berrikusi behar lituzke, eta azterketa fidagarriak, eguneratuak eta adingabeen osotasun fisikoa kaltetzen ez dutenak abiarazten inbertitu behar luke.

<sup>17</sup> Herritarren Defendatzailearen txostena, adina kalkulatzeko prozedura, adingabeak ala helduak?

<sup>18</sup> Europako Kontseiluko Giza Eskubideen europar Komisario Thomas Hammarbergek ere agirik gabeko atzerritar adingabeen adina ezagutzeko metodoak hobetzeko eskatu du. Ebaluazioa diziplina anitzeko aditu independente talde batek egitea proposatu du, gorputz, gizarte eta psikologia heldutasuna kontuan hartuz eta haren kultura, duintasuna eta osotasun fisikoa errespetatuz. Halaber, haren arabera, adinari buruzko zalantza handirik ezean, aurkeztutako agiriek eta pertsonak berak egindako adierazpenek izan behar lukete gida.



Adingabeei eta atzerritarrei buruz espezializatutako fiskalen topaketako 4. ondorioan -Madril, 2010eko apirilaren 20a<sup>19</sup>, arestian aipatu legez, honakoa adierazi da: *“adina kalkulatzeko txosten medikuek ziurgabetasun edo desbiderapen estandarraren ehunekoa zehaztu behar dute. Jasotako txostenei, adin tarterik ez jasoagatik edo edozein zioengatik, aski iritzi behar ez zaienean, behar diren kontuak zabaltzeko edo argitzeko eskatu beharko da. Ez da adina zehazteko dekreturik emango osasun txosten nahikoa izan gabe”*. Eta aurrerago: *“Adina “gutxi gorabehera 28 urtekoa” dela edo antzekoak (“17 urte inguru” edo “17 urtez gorakoa”) aipatzen dituzten txostenak ez dira onargarriak. Behin-behinean, osasun txostenean ezarritako balizko adinik txikiena hartuko da aintzat”*.

Fiskaltzak honako eginkizuna ere badauka: funtsezko alderdi mediku eta legalen, adina kalkulatzeko prozeduraren eta, emaitzaren arabera, eragingo litzuzkeen ondorio juridikoen eta azterketa egiteari uko egiteak ekar litzuzkeen ondorioen berri eman behar dio berak edo eman zaiola kontrolatu behar du. Izan ere, azterketa egiteari uko egitea *“espedientean dauden gainerako datuekin batera balora liteke, adin nagusitasunaren zantzu gisa. Zantzu indartsua da, baina ez erabakigarria; izan ere, irizpide nagusia egiazko adingabe setati edo beldurti bat adinduntzat oker hartzea saihesteak izan behar du”*. Halako kasuetan, fiskalak buruz buruko elkarrizketa egitea aurreikusi du Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/09 Kotsultak. Garrantzitsua da gogoratzea adingabe/gaztearen baimena berariaz jaso behar dela eta, bestela, azterketak ez lukeela baliorik.

Informazio prozesu horretan, *“Recomendaciones sobre métodos de estimación forense de la edad de los menores extranjeros no acompañados. Documento de Consenso de Buenas Prácticas entre los Institutos de Medicina Legal de España”* dokumentuak, bestalde, gogorarazi du ustezko adingabea behar bezala informatu behar dela eta, aztertzaileak edo aztertzaileek dakiten hizkuntzan jakinarazi ezean, eta agintaritzak hala egiaztatuz gero, **itzultzaile-interpretatzaile batek egon behar duela bertan**. Alegia, profesional medikuek ere eman behar diete interesdunei egingo zaizkien azterketen irismenaren eta ondorioen berri, ulergarria gerta dakiekeen moduan, baita haiek egiteko haien baimena izan beharrenean berri ere.

Bestalde, kontuan izan behar da Fiskaltzak **pertsona berari buruz adina zehazteko beste dekretu bat** eman dezakeela. 1/2009 Kotsultan bertan adierazienez *“ez da sistematikoki aldatu behar”*, besterik gabe, ustezko adingabea beste lurralde batera iritsi delako. Emandako Dekretu berriak *“behar bezain arrazoituta egon behar du, eta bertan azterketa egitea zuritzen duten arrazoi zehatzak xehatu behar dira”*.

1/2009 Kotsultan adierazienez, adierazi behar da Espainian Atzerritarrek dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzko Legeko 35 artikuluan jasotako egoera ustezko adingabearen nortasuna edota adina frogatzeko agiririk ezeko testuinguruan sortu dela, edo erakutsitako tituluak faltsutasunaren zantzu badira edo sortu diren herriek haietan ageritako titularraren adinari buruzko datuak ziurtasunez bermatzen ez dituztenean eta hala, horri buruzko zalantzak

<sup>19</sup> EFNren 2/2006 Zirkularrean eta 1/2009 Kotsultan ere adierazi da



egonda eta haiek argitzeko beste biderik ez dagoelarik, beharrezkoa izan daiteke hura gutxi gorabehera kalkulatzeko osasun azterketetara jotzea.

Ondoren honakoa erantsi du: *"Ondore horietarako, agiririk ez dutenak ez ezik, nortasuna edo adina ustez faltsua den agiriarekin frogatu nahi dutenak ere jo behar dira agiririk gabetzat, EFNren 2/2006 Zirkularrak adierazi duenez, baita, euren identifikaziorako, Espainian Atzerritarrek dituzten Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzko Legeko 25. artikuluan adierazitako edozein agiri erabiltzen dutenak ere, bertan argi eta garbi faltsuak edo beste agiri batzuekin kontraesankorrak diren datuak ageri badira edo, datozen herrietako administrazioek pasaportearen sartzen diren interesdunaren jaiotze datari, tokiari edo seme-alabatasunari buruzko datuen ziurtasuna edo fidagarritasuna ez bermatzeagatik, adinari dagokionez fidagarriak ez badira. Kasu horretan sartzen dira ustezko adingabeari zenbait seme-alabatasun edo jaiotze data dakartzaten agiriak aurkitu zaizkion kasuak ere".*

Identifikatzeko agirien (pasaportearen, jatorrizko herriko nortasun agiria edo pareko agiriak) baliozkotasunari buruzko zalantzak gabezia formalengatik (balizko manipulazioa, ziurtatutako kopiarik gabeko originalaren falta, etab.) eta, batez ere, emandako agirietan ageri den adinaren eta gaztearen itxura fisikoaren behaketatik ondorioztatutako itxurazko adinaren arteko desadostasunengatik sortzen dira.

Agiri baten izaera akastuna, okerra edo iruzurrezkoa ageri dezaketen zantzuen artean, 1/2009 Kontsultak Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren egoera zibilari buruzko fraude dokumentalaren prebentzioaren gaineko 2006ko martxoaren 20ko Instrukzioak xedatutako irizpideak aipatu ditu: *"a) agiriaren dataren eta dagokion egitatearen dataren arteko tarte oso luzea egotea; b) agiria aipatzen duen egitatearen denbora luzea igaro ondoren eta dagokion izapidea baino lehenago tarte oso laburra egonda egin izana; c) aktan edo agirian jasotako datuen artean kontraesanak edo alderdi sinesgaitzak egotea; d) zuzenean dagokion pertsonaren adierazpenak oinarri bakarra izanda egin izana; e) agiria bertan aipatutako egitatearen egiazkotasuna bermatzen duen elementu objektiborik eduki gabe egin izana; f) akta originala ez zeukan edo eskuratzerik ez zuen agintaritzak batek egindako agiria izatea."* Baita honakoak ere: *"a) aurkeztutako agiriaren eta agintaritzaren eskudunari jakinarazitako edo hark dauzkan beste akta edo agirietan ageritako datuen artean kontraesanak edo alderdi sinesgaitzak egotea; b) aurkeztutako agirian ageri diren datuak, itxura batean, aipatzen duten pertsonari buruzkoak ez izatea; c) gaiari buruzko eskumena duen agintaritzak, bide ofizialetatik, interesdunari egotz dakizkiokeen lehenagoko iruzurren edo irregulartasunen berri eduki izana; d) gaiari buruzko eskumena duen agintaritzak, bide ofizialetatik, aurkeztutako agiriaren jatorrizko Estatuaren erregistro zibilen kudeaketan edo erregistroek emandako frogagiritan irregulartasun ugari gertatu izanaren berri eduki izana".* Irizpide horiek adingabetasuna frogatzeko erabilitako pasaportearen edota jaiotza-ziurtagiria akastuna, okerra edo iruzurrezkoa dela zurrizko balio behar lukete eta **arrazoi horiek berariaz adierazi behar lirateke**. Hala ere, pasaportearen baliozkotasunik eza ez da behar bezala arrazoitzen, gehienetan.







Edonola ere, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren egoera zibilari buruzko iruzur dokumentalaren gaineko 2006ko martxoaren 20ko Instrukzioaren edukiari jarraituz, halaber, Estatuko Fiskaltza Nagusiak honakoa gogorarazi du: *“halako kasuetan, agiriak sortzen duen zalantzaren aurrean, Instrukzioaren arabera komenigarria da gaian eskumena duen agintaritzak behar diren egiaztapen guztiak egin ditzala, bereziki interesdunarekin eta, beharrezkoa bada, posible izanez gero, dagokion tokiko agintariekin batera, jatorrizko Estatuko erregistroetan akta hori dagoela eta aurkeztutako agiriarekin bat datorrela berrets dezala”*.

Hortaz, behar diren egiaztapenak gazteen jatorrizko herrietako agintariekin batera egin litezke. **Erakunde honen aburuz, aukera hori aintzat hartu behar litzateke, gero garatuko dugunez.**

**II.3.** Jarraian, kexen izapidetzean ikusi ditugun **gabeziak** aipatu ditugu, alderdi batzuetan aurrera egin dela aitortuz, baina garrantzitsua da prozesu osoan bete behar diren bermeak gogoan izatea, gomendio honetan jaso denez.

Jaso ditugun kexa batzuetan, Fiskaltzak adina zehazteko emandako dekretuek ez zuten islatzen errakuntza tartea dagoenik; aitzitik, adin data zehatz bat ezartzen zuten, edo “gutxi gorabehera 18 urtekoa” zela esaten zen; halaber, ez ziren egin Estatuko Fiskaltza Nagusiaren instrukzioetan xedatutako bermeak (baimendutako informazioa, etab.) betez; edo ez zen kontsultatu adingabeen erregistroa, edo kasuren batean azterketak ezin izan ziren egin adingabeak lehenago alde egin zuelako eta adinduna zela baloratzen zen Fiskaltzak erabakitako osasun azterketak egin ez zituen arren.

Beste kasu batzuetan, adingabeei arreta eman zietenak ez ziren babes zerbitzuak, polizia baizik, eta hark bideratu zituen ustezko adingabeak osasun zerbitzuetara. Adina zehazteko dekretuaren ondoren, zeinek erradiologia azterketen arabera adindunak zirela erabakitzen baitzuen, adingabe/gazteek gizarte erakundeetara jo zuten euren egoeraren eta jasotako arretaren gabezien berri emateko.

Antzemandako beste gabezieta bat adina kalkulatzeko diagnostiko azterketen interpretazioan auzitegi-medikuntzako euskal erakundeak parte ez hartzea da. Horri esker, adina zehazteko emandako dekretuak azterketa isolatuen interpretazioan (adib., erradiologia azterketa hutsetan) oinarritu dira eta, beraz, ez dute behar den zorrotasun zientifikoa.

Azkenik, egindako azterketak edota adina zehazteko dekretua, hura jasotzen duen berriazko administrazio ebazpenik egon ez den kasuetan, dagokion foru aldundiak eman ez duelako edo azterketak beste erkidego batean egin zirenean jakinarazi ez zitzaielako eta lurralde historiko batean babesa eskatzerakoan beste autonomia erkidego batean egindako azterketen eta dekretuen arabera, hura onartuko ez zaiola jakinarazi zaiolako, auzibidean errekurritzeko zailtasunei buruzko kexak aipatuko ditugu. Aurrerako aztertuko dugu oinarrizko berme hori.





Azkenik, kontuan izan behar da eskatzen den adinaren kontzeptua adin kronologikoari dagokiola, eta medikuntzak adin biologikoa ematen duela<sup>20</sup> edo garapenari dagokiona, eta haren xedea balizko patologiak aurkitzea dela. Pertsona baten heltzeko garapena hainbat eragilerengatik alda daiteke -genetikoak, sozioekonomikoak, gorputz jarduera, elikadura, eguzki esposizioa...-. Horrengatik, azterketa ugari egitea, haien zorrotasuna<sup>21</sup> eta errakuntza tartea onartzea funtsezkoak dira. Azterketen interpretazioari buruzko berriazko prestakuntza duten auzitegi-medikuntzako adituek esku hartzea ere zorrotasunaren bermea da.

#### II.4. Arartekoaren proposamenak

1. Erakunde honek askotan errepikatu du pasaportearen edukia faltsua, okerra edo iruzurrean egina izatearen arrazoizko zantzuak egon behar direla osasun azterketak egitea zuzitzeko. **Administrazio eta erakunde eskudunek azterketak egin aurretik arrazoitu behar lukete zantzu horiek daudela.**

Pasaportea herri batek emandako agiria da eta nazioarteko balioa dauka, zenbait lege, nazioarteko hitzarmen eta segurtasun neurriren pean. Pasaportek agiri ofizialak dira eta pertsonak eta duten herritartasuna identifikatzeko erabiltzen dira. Haiei esker, pertsonak legez bidaiatzen dute nazio mugetan zehar. Beraz, pasaportearen eginkizuna Estatu bateko nazionalak identifikatzea da, atzerriko herrien onurarako, eta itzultzeko eskubidea bermatzea. Nazioarteko komunitateak, NBE eta Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundearen (NAZE) bidez, nazioarteko bidaietarako jardunbideak eta estandarrak eta dokumentazio prozedurak ezarri ditu<sup>22</sup>.

---

<sup>20</sup> Madrilgo Probintziako Auzitegiko 22. atalaren 2012ko urtarrilaren 9ko autoa: "Baina azterketa egiten duen medikuak, egiatan, ezin dio legezko adin horren kalkulurik eman legelariari, harren adin biologikoarena baizik. Adin biologikoak, adina izan arren, ez du kontzeptu kronologikorik definitzen; aitzitik, miatzaile batek gizaki baten heltze eta garapen prozesuan biztanle talde jakin batean adin kronologiko jakin batean izan ohi diren zenbait mugari identifikatzeagatik definitzen da. Beraz, adin biologikoa eta adin kronologikoa ez dira zehazki gauza bera, identifikatzen dituen heltzeko mugarriak adin kronologikoaren parean joan ohi badira ere. Adin biologikoa heltzeko mugarri horien hurrenkerari jarraitzen dioten pertsona guztien adin kronologikoaren parean doa, eta ia uniformea da gizaki guztiengan, **baina pertsona guztiak ez datoz zehazki bat horrekin. Gizaki batzuek ohiko adin kronologiko horren aurretik aurreratzen dituzte euren heltze erritmoak eta beste batzuek atzeratu egiten dituzte, hainbat zio direla-eta (...)**

<sup>21</sup> Berriz azpimarratuko dugu 9. oharrean aipatu Recomendaciones sobre métodos de estimación forense de la edad de los menores extranjeros no acompañados. Documento de consenso de buenas prácticas entre los institutos de medicina Legal de España agiria betetzearen garrantzia.

<sup>22</sup> NAZE Chicagoko Konbentzioak sortu zuen Nazio Batuen agentzia espezializatua izateko. Guztira 188 Estatuk sinatu dute. Batzarrak ebazpenak eman ditu A37-20 aireko garraioaren esparruko politika iraunkorren eremuan: NAZEren aireko garraioaren esparruko politika iraunkorren adierazpen finkatua abiazio zibilar buruzko Hitzarmena aplikatuz, D eranskina, II. Atala "Pasaporteen segurtasuna eta osotasuna babesteko nazioarteko lankidetzan", [www.icao.int/publications/Documents/9958\\_es.pdf](http://www.icao.int/publications/Documents/9958_es.pdf)



Nazioarteko ahalegin horiek zalantzan jartzeko arrazoizko zuribidea behar da eta, beraz, Fiskaltzaren zein dagokion foru aldundiaren prozesu aurreko eginbideetan, pasaporte balioduna dagoenean adina zehazteko azterketa horiek egitea eskatzeko arrazoiak azaldu behar lirateke. Alegia, proportzionaltasun- eta premia-judizioa egin dela eta, doktrina konstituzionala aplikatuz, pasaporte batek baliorik ez izateko eta adina zehazteko azterketara jo behar izateko zioak behar bezala neurtu direla.

Espanian atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoko 4. artikulua honakoa xedatu du:

*"Espainiako lurraldean dauden atzerritarrek eskubidea eta betebeharra dute euren nortasuna frogatzeko jatorrizko herriko agintaritzak eskudunek emandako agiriak eta Espainian duten egoera frogatzen dutenak gordetzeko".*

Halaber, 2/2009 Lege Organikoak aldatu ondoren, apirilaren 20ko 557/2001 Errege Dekretuak Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia garatzeko onartutako Arautegiko 62. artikulua honakoa xedatu du: *"Pasaporteak, bidaia tituluak eta balioduntzat jotzen diren gainerako agiriak titularren jatorrizko herrietako agintaritzak eskudunek edo nazioarteko zuzenbideak horretarako gaitutako nazioarteko erakundeek eman behar dituzte eta, edonola ere, titularren nortasuna eta naziotasuna zehazteko datu nahikoak izan behar dituzte. Pasaporteek haiek eman dituen herrira itzultzea ahalbidetu beharko dute".*

Lege horrek xedatutako betebeharra pasaporteari dagokio (ez jaiotza-ziurtagiriari). Atzerritarra identifikatzen duen agiria pasaportea da eta agiri berria eman dezakeen agintaritzak bakarrik haren jatorrizko herrikoa da. Administrazio horren arabera adin zuzena pasaportean ageri dena bada, **ezin luke eduki adindun identifikatzen duen agirik**, eta horrek herri-administrazioekin erlazioak izatea, bizileku baimena eskatzea, eroldan erregistratzea, zerbitzu edo prestazio publiko bat eskatzea edo negozio juridiko bat sinatzea zailtzen dizkio, ez daukalako jarduteko gaitasun osoa. Babesgabetasun eta ahultasuneko egoeran uzten da, ez baitago hura ordezkatzeko pertsona heldurik ez babes erakunderik.

Hortaz, komenigarria litzateke dagokion foru aldundiak, Fiskaltzari adingabea dela dioen eta pasaportea daukan pertsona bat aurkitu dela jakinarazten dionean, **pasaporteak daukan informazioa aintzat ez hartzeko zioak arrazoitzea**. Pasaportea agiri ofiziala da eta egiazkotasun presuntzioa dauka. Presuntzio hori beste frogabide batzuek baino ezin dute indargabetu. Hori dela-eta, foru aldundiaren eta Fiskaltzaren aburuz haren edukia egiazkoa ez bada, hura arrazoitu eta ondorio horretara iristeko zioak zuriu behar dituzte. **Garrantzitsua da gogoratzea zuzenbidean ez dagoela fede txarraren presuntziorik.**

Izan ere, jurisprudentzia aztertuta ikusten da, kontrako ebazpen judizial batzuk badaude ere, pasaporteari osasun azterketen gaineko balioa eman dioten epaiak ere badirela, osasun azterketek adina zehazterakoan, eta batez ere erabilitako prozedurak zenbait berme bete ez baditu, daukaten fidagarritasunik ezean



oinarrituta, auzitegi-txostena behin betikoa eta osagabea den aditu-froga bihurtzen baitute. Auzitegiek<sup>23</sup> adierazi dutenez, pasaportearen egiazkotasun presuntzioa kontrako frogaren bidez suntsitu behar da. Pasaporte horiek jaiotza-ziurtagirian oinarrituta lortzen dira, Marokon bezala. Jaiotza-ziurtagirik egoera zibilaren, hala nola jaiotegunaren, fede ematen dute.

Arabako Probintzia Auzitegiaren ekainaren 2ko 84/2004 Epaiak balio handiagoa eman dio Marokoko pasaporte baten kopiari, eta haren bidez, falta-epaiketa batean kondenatutako pertsona bat, jaiotegunaren arabera, adingabea zen: "...erabat argia da PKLko 375. artikulua lehentasun handiagoa ematen diola edozein frogagiriri mediku batek egin lezakeen aditu-agiriari baino, eta agiri hori emandakoan ezin da jaiotegunari buruzko zalantzarik egin"; Bartzelonako Lehen Auzialdiko 16. Epaitegiaren Epaiak: "Pasaportearen izaera eta jatorria direla-eta, kasu honetan agiri-froga aditu-froga batekin indargabetu daiteke; horrek ez du esan nahi aditu-froga besterik gabe onartu behar denik, froga zientifikoa kontrolatu behar dela baizik...". Eta aurrerago honakoa dio: "Egindako azterketak ez du adina argitzeko balio izan (...); (...)ren adinari buruzko zalantzak ez datoz pertsonaren itxura fisikotik edo Espainiak Malirekin elkar onartzeko itunik sinatu ez duelako, eta txosten klinikoaren eta auzitegi-txosten bien edukitik ere badator, eta nire ustez osagabeak dira haiak; adingabearen interes gorenaren printzipioa aplikatu behar da eta hura nagusitu behar zaio beste edozeini eta gure ordenamendu juridikoak lege askotan bermatu du"; Santanderreko 1. Auzialdiko Epaitegiaren 2004ko maiatzaren 6ko Epaiaren arabera, agiria egiazkoa izanik, osasun azterketa osagarria da, inoiz ez behin betikoa, eta akastuna izan daiteke; hori dela eta, agiri ofizialen egiazkotasun presuntzioa ezin da indargabetutzat jo: "PZLko 319.1 artikulua arabera agiri publikoek euren egiazkotasuna berez frogatzen duten bitartean, pasaportea edo bizileku-txartela bezalako agiri ofizialek egiazkotasun ustea baino ez dute ezartzen, iuris tantum presuntzioa, eta, beraz, beste froga-bideen bitartez indargabetu daiteke. Agiri horien egiazkotasuna ukatzen duen alderdiak -administrazioak kasu honetan- frogatu behar du haien zehaztasunik eza". Madrilgo Lehen Auzialdiko 28. Epaitegiaren maiatzaren 4ko 201/2010 Epaiak mediku-frogaren fidagarritasuna aztertu eta honakoa ebatzi du: "Hezurren adina kalkulatzeko fidagarritasunaren arazoa dauka; izan ere, adin biologikoaren soberespen edo azpiestimazio arriskua dauka (...) balizko adin tarteak, gutxienez, adina soberesteko hamazortzi hileko arriskua hartu behar du aintzat eta, adin tarte horren barruan, txikiena aintzatetsi beharko da beti, orokorrean, orrek asetzen duelako adingabearen interesa...".

<sup>23</sup> Pasaporteari balio handiagoa eman dioten beste ebazpen batzuk: Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 7. Atalaren 424/2006 Epaiak; Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren 2007ko abenduaren 18ko Epaiak, Donostiako Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiaren 2010eko otsailaren 25eko Autoa, borondatezko jurisdikzioko 156/2010 prozedura; Donostiako Lehen Auzialdiko 3. Epaitegiaren 2010eko azaroaren 24ko Epaiak, 442/2010 neurri aurkakotza; Madrilgo Lehen Auzialdiko 80. Epaitegiaren 2011ko ekainaren 8ko Epaiak, entitate publikoaren erabakiari jarritako 1069/10 aurkakotza; Bartzelonako Lehen Auzialdiko 19. Epaitegiaren 2011ko urtarrilaren 17ko Epaiak, adingabeak babesteko neurri aurkakotzako 314/2011 prozedura, 2011ko maiatzaren 13ko Autoa; Bartzelonako Lehen Auzialdiko 16. Epaitegia, 2011ko martxoaren 18ko Epaiak, 406/2010 prozedura.



Madrilgo Probintziako Auzitegiko 22. atalaren 2012ko urtarrilaren 9ko autoa: *"adinaren auzitegi-kalkulua auzitegi-medikuntzako balorazioa da eta ez da inoiz ziurtasuneko diagnostikoa, ezta bibliografia medikuak ondorio guztiz zuzenen alde egiten omen duen kasuetan ere", eta aurrerago: "administrazio edo justizia agintariek aztertzen ari garen adingabearen gaian hartutako funtsezko erabaki ororen funtsezko irizpide gidariak adingabearen onura izan behar du, hori guztia KZeko araudiko eta Adingabearen Babes Juridikoaren 1996ko Legeko lege betekizunen arabera, hori dena nazioaz gaindiko legediaren arabera interpretatuta..."*.

Epai batzuek, ordea, balio handiagoa eman diete egindako osasun azterketei, **zenbait berme bete dutenean:**

Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren ekainaren 7ko 385/2012 Epai: *"Adina kalkulatzeko egiten diren osasun azterketetan errakuntza tartea badago ere, Espainiako Herriarren Defendatzailera egindako Txostenean legeko ondorio handiekin ageri den bezala, adostasuna dago diagnostiko fidagarria izateko haien guztien emaitza uztartu beharri buruz. Horregatik gorputzaren miaketara, hezurren heldutasunera (eskuturraren arradiologia miaketa), haginaren azterketara, ortopantomografiaren laguntzaz, eta lepauztaiaren azterketara jotzen da"*<sup>24</sup>.

Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren ekainaren 19ko 425/2012 Epai: *"Egitan, hezurren adinaren bidez adin kronologikoa auresateko eskuturreko karporen erradiografiak ez darama emaitza erabateko eta zalantzarik gabeetara eta, gomendio guztien arabera, azterketa horien errakuntza tartea hartu behar da aintzat, baina kasu honetan ortopantomografia ere egin da, eta azterketa horietatik ateratako ondorio medikoaren arabera, elkarrizketak eta gorputzaren miaketak osatuta, gutxieneko adin txikiena (...) 18 urte litzateke, Institut de Medicina Legal-ek 2010eko azaroaren 26an emandako txosten medikuan adierazi denez. Alegia, osasun azterketen arabera, interesduna adinduna zen espediente ireki zitzaionean. Txosten medikuaren edukia ikustaldian argitu zen eta bertan adierazi zenez, egindako osasun azterketen errakuntza tartea ere hartu zen kontuan ondorioa ateratzerakoan eta auzi-jartzaileak guztiz mineralizatuta zeuzkan molarrak. Hortaz, berretsi behar da egindako osasun azterketek errekurtsioan aipatu auzi-medikuek egindako txostenean jasotako gomendioak eta arauak bete direla"*.

**2.** Espainiak agiriak onartzeko zenbait itun sinatu ditu, besteak beste, Maroko, Algeria eta Mauritaniarekin<sup>25</sup>.

Marokori dagokionez, 40. artikulua honakoa xedatu du:

<sup>24</sup> Antzeko edukia duen beste epai bat: Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren ekainaren 21eko 433/2012 Epai.

<sup>25</sup> Espainiako Erresumaren eta Marokoko Erresumaren arteko gai zibilei, merkataritzari eta administrazioari buruzko lankidetzaren hitzarmena 1997-6-25 BOE (151); Aljeriako Herri Errepublikako Demokratikoaren eta Espainiako Erresumaren arteko gai zibilei eta merkataritzari buruzko laguntza judizialari buruzko hitzarmena (103); Espainiako Erresumaren eta Mauritaniako Errepublikako Islamdarraren arteko gai zibilei eta merkataritzari buruzko laguntza judizialari buruzko hitzarmena, 2006-11-8 BOE (267).



*“Estatu bateko edo bietako justizia agintaritzek edo beste agintaritza batzuek egindako agiriak, eta agintaritza horiek haien fidagarritasuna eta data, sinaduraren egiazkotasuna edo jatorrizkoarekin bat etortzea ziurtatzen badute, ez dira legeztatu beharko edo ez zaie pareko bestelako formalitaterik egin beharko beste estatuaren lurraldean aurkeztu behar direnean.*

*Haiek emateko agintaritzaren sinadura eta zigilu ofiziala izan beharko dituzte agiriak eta kopiak izanez gero, agintaritza horrek originalaren arabera ziurtatuta egon beharko dute. Edonola ere, materialki euren egiazkotasuna argia gertatzen den moduan egin eman beharko dira. Agiriaren egiazkotasunari buruzko zalantza handiak egonez gero, Estatu bietako agintaritza nagusiaren bidez egiaztatuko da”.*

Euskadiko Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Salaren apirilaren 24ko 1121/2012 Epaian, langile bat kaleratzeko eskaera bati dagokionez, ez zen hitzarmena aplikagarritzat jo, honako arrazoiak emanda: *“legeztatu beharrik ez duten agiriak alderdi bietako agintaritzen artean, zuzenean edo bide diplomatikotik, gurutzatzen, jakinarazten edo igortzen direnak dira, baina ez herritarrek zuzenean aurkezten dituztenak, agiriak komunikatzeko eskaerarako hitzarmenak aurreikusi dituen aukerak kaltetu gabe; kasu honetan, demandagileak ez du aukera hori jokatu”.*

Hitzarmenak justizia agintaritzetatik edo **beste agintaritza batzuetatik** datozen agiriak aipatu ditu. Bertan aurreikusi denez, agiriaren egiazkotasunari buruzko zalantza handiak egonez gero, Estatu bietako agintaritza nagusiaren bidez egiaztatuko da.

Xedapen hori oso garrantzitsua da; izan ere, bidea ematen du foru aldundiak edo fiskaltzak Marokoko agintaritza eskudunari pasaportea emateko erabili den jaiotza-agiriaren edo pasaportearen beraren egiazkotasuna ziurtatzea eskatzeko, eta horrek adina zehazteko osasun azterketak egitea saihestuko luke.

Erakunde honetako langileek Marokok Bilbon duen kontsularekin izandako bileran, hark adierazi zigun egiaztapen hori epe nahiko laburrean egin litekeela eta, beraz, aukera bat egiaztapen hori osasun azterketak egin aurreko epe jakin batean egitea litzateke. Herrietako agintaritzen arteko harremanak bide horretatik indartu egingo lirateke, adingabearen interes gorenaren alde, adina kalkulatzeko azterketak baino egokiagoa baita, adingabe/gazteak bere adinari buruzko agiriak erakusten dituen kasuetan.

Jokabide hori Egoera Zibilaren Nazioarteko Batzordeak gomendatutakoaren antzekoa da -Egoera Zibilaren Nazioarteko Batzordearen (EGNZ<sup>26</sup>) 9. gomendioa,

<sup>26</sup> Egoera Zibilaren Nazioarteko Batzordea (EZNB) nazioarteko erakunde autonomoa da, nazioarteko beste erakunde batzuei lotua (besteak beste, Europako Kontseiluari eta Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Biltzarrari). Erakunde horren xedeak egoera zibilari buruzko nazioarteko lankidetzaren sustatzea, egoera zibilaz arduratzen diren zerbitzu nazionalen funtzionamendua hobetzea eta pertsonen eta familien zuzenbidez arduratzen diren nazioarteko beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea dira, besteak beste.





egoera zibilari buruzko dokumentuzko iruzurrari buruzkoa, eta Estrasburgoko Batzar Nagusiak 2005eko martxoaren 17an egindako azalpen txostena-.

Bera eta dauzkan datuak egiazkoak izateko agiri batek bete behar dituen betekizunei buruz ohartarazi ditu Estatuak gomendio horrek, eta egin edo idatzi zen baldintzei edo kanpoko beste elementu batzuei dagokienez, agiri bat akastuna, okerra edo iruzurrezkoa dela ager dezaketen zenbait zantzu aipatu ditu.

Mementoz, gomendioak Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren egoera zibilari buruzko dokumentuzko iruzurraren prebentzioari buruzko 2006ko martxoaren 20ko instrukzioa ekarri du, eta Espainiako udal eta kontsulatuetao erregistro zibilek eta erregistro zibil nagusiak aplikatu behar dute.

Bestalde, Erregistro Zibilaren Arautegiak, 85. artikuluan, xedatu du atzerriko agintaritzetara zuzenean jo behar dela agirien egiazkotasunari buruzko zalantzak daudenean: *“Atzerriko erregistroaren ziurtagirien arabera espedienterik gabeko inskripzioak egiteko, erregularra eta egiazkoa izan behar du hark, ziurtatzen den idazkunak, fede emandako egitateei dagokienez, Espainiako legeak inskripziorako eskatzen dituenen antzeko bermeak izan ditzan.*

*Atzerriko ziurtagiri edo agiritik atera ezin diren datuak eta inguruabarrak lege bitartekoen bidez osatuko dira, hartan ageri ez badira, haien egiazkotasuna ziurra ez bada edo, edozein zio dela-eta, haren errealtateari buruzko zalantzak badaude.*

*Atzerriko erregistroan inskribatuta ez egoteak ez du galarazten Espainiakoan egitea, titulu askiaren bidez”.*

Azken batean, adingabearen adinak ez luke zalantzarik sorrarazi behar gorputz itxuragatik haren adingabetasuna argia bada edo adina ondorioztatzeko modukoa den eta egiazkotasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen agiriak badauzka<sup>27</sup>. Egiazkotasunari buruzko zalantzak egonez gero, beste froga batzuk erabili behar lirateke, hala nola jatorrizko herriko agintaritzek datuak ziurtatzea. Maroko bezalako herrien kasuetan, Espainiak hitzarmena sinatu duenez gero, bide diplomatikora jo behar litzateke, eta jatorrizko herriko agintaritzek ziurtatu behar lukete agirien egiazkotasuna.

---

Erakundeak hitzarmen multilateralak -derrigorrez bete beharreko tresna juridikoak dira-onartu ditu, eta gomendioak egiten dizkio Estatuak. Eskubide osoko hamahiru Estatu kide dauzka: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Italia, Luxemburg, Portugal, Erresuma Batua, Suitza eta Turkia. Estatu begiraleen artean Egoitza Santua eta Suedia daude.

<sup>27</sup> Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/06 Zirkularra: “Agiririk gabeko atzerriar adingabea, bere ezaugarri fisikoengatik, zalantzarik gabe adingabea bada, edo 35. artikuluan xedatutakoa gertatzen bada, Adingabeak Babesteko Erakunde Publikoaren esku jarri beharko da, erreferentziako manuan aurreikusitako azterketak premiaz egin gabe, eta adingabearen adin zehatza kalkulatzeko ondorengo gestioak kaltetu gabe; gestio horiek ondorio juridiko erabakigarriak izan beharko dituzte eta haren legezko tutoreak egin beharko ditu”.



Adingabearen identifikazioa, familia aurkitu eta jatorrizko herrian duen gizarte eta familia egoera ezagutu ondoren familia birbatzeko prozesuari ekin aurreko urratsa da; izan ere, lehenago haren osotasun fisikoarentzako arriskurik dagoen eta berak edo haren familiak jazarpenik pairatzen duten (edo jatorrizko herrian babes baliabide egokirik dagoen) baloratu behar litzateke. Bestela, geratzea adingabearen interes gorenerako egokiena gure erkidegoan dela baloratzen da eta, beraz, pasaporte emateko eta bizileku-baimena eskatzeko gestioak burutzen dira. Alegia, **familia birbatzeko edo gure erkidegoan geratzeko identifikatuko da, hasieran adina kalkulatzeko egindako osasun azterketak gorabehera.**

### **III. Fiskaltzak adinduna dela ebatziz emandako adina zehazteko dekretuaren ondoren egoitzako abegia, zaintza edo tutoretza eteterakoan bermeak eta eskubideak betetzea.**

Fiskaltzak adinduna dela dekretatutakoan, dagokion foru aldundiak berehalako abegia, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza etetea erabakiko du, fiskaltzaren dekretuari eta auzitegi-medikuaren txostenari jarraituz. Adingabe/gazteak haurtzaroaren zerbitzuaren arreta jaso du, baina adina zehazteko dekretuaren ondoren arreta hori amaitu egingo da eta, beraz, errealitatea islatuko duen ebazpena eman behar da. Arretarik ezak edo administrazio ebazpenik ezak babesgabetasuneko egoeran uzten du adingabe/gaztea; izan ere, bere eskubideei eragiten dion izatezko egoera batean legoke, horren berri ematen duen agiririk izan gabe. Beraz, garrantzitsua da gazteari egoera horren berri ematea, hala nahi badu, dagokion errekurtsio judiziala aurkeztu ahal dezan. Arestian aipatu legez, adina zehazteko dekretua behin-behinekoa da; prozesu aurreko eginbideak dira eta ezin dira errekurritu; hortaz, foru aginduaren aurkako errekurtsioan zalantzan jar daiteke beste agiri batzuen -pasaporte, edo adingabe/gaztearen jaiotza-akta legeztatua-balioaren aurrean osasun azterketek duten balioa.

Herritarren Defendatzaileak adierazi du polizia kideek aurkitzen duten unetik ustezko adingabearen eskubideak defendatuko dituen abokatuaren laguntza behar dela. Abokatuaren laguntzaren bidez adingabe/gazteak bere eskubideak ezagut litzake eta adina zehazteko osasun azterketak egin aurretik gazte/adingabeari entzunaldia egin eta behar den informazioa eman zaiola kontrolatzeko balioko luke. Hala ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren esanetan, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 20.2 artikulua antzeko askatasunaz gabetzearen aurrean geundeke eta Espainiako Konstituzioko 17. artikuluko bermeen mendekoa izanik, **ez du abokatuen laguntzarik behar.**

Abokatuen laguntzaren aukera Gipuzkoako adingabeei buruz jarduteko protokoloan xedatu da, baina ez du biderik izan, Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen ofiziozko txandan ez delako arreta hori aurreikusi.

Defentsarako eskubidea, gure autonomiako araudian, Haurren eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzko 3/2005 Legeko 17. artikuluan eta gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza abegiko baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuko 23. artikuluan arautu da. Eusko





Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak 605/2011/31 kexa espedientean erantzun zion Arartekoari adina zehazteko prozeduraren gainean agertutako kontu batzuei buruz.

Kontu horiek Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen esku-hartzeari eta adingabeak direla adierazi duten pertsonen polizia egoitzan (edo haurrak babesteko zerbitzu batean) adingabea izateagatik eta agiririk ez edukitzeagatik zenbait osasun azterketa egingo zaizkiola jakinarazten zaion unetik abokatu independente baten aurrean informazio egokia edukitzeari buruzkoak eta doako laguntza juridikorako eskubidea bermatzeko neurri egokiak ezartzeko aukerari buruzkoak ziren. Jarraian sailak emandako erantzuna kopiatu dugu, duen garrantziagatik:

*“Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak, hain zuzen ere Gipuzkoako Zuzendairodetzak, ez du zerikusirik izan (...)en adina zehazteko garaian edo harekin adina zehazteko garaina edo harekin zerikusia duen beste ezertan. AMEEK esku hartu ez izanaren arrazoia, inork ez eskatzea da. Sail honen ustez, behar-beharrezkoa da adina dela-eta tutoretza bukatzeko edo ez hartzeko foru-aginduen kontra joan nahi duten adingabeei laguntza juridikoa ematea. Hala pentsatzen dugulako, hain zuzen ere, orain izapidetze-aldian dagoen Doako Justiziar buruzko Dekretuan beren-beregi dago aurreikusita laguntza juridiko hori sartzea. Fiskaltzarena da adingabeei informazio egokia eta modu ulergarrian emateko ardura-konstituzio-organo horren zeregina da, besteak beste, adingabeen interesak defendatzea- eta, kontuan hartuta aurreko erantzunean aipatu dugun aurreikuspena dagoela, inoiz informazio-faltarik izanez gero, kaltea jasotzen duen adingabearen letratuak informazio-falta hori erabili dezake dena delako foru-arauaren kontrako errekurtsua jartzeko arrazoitzat eta, horrela, adingabearen eskubideak babestuta geratzen dira.”*

Horren ondorioz, gainontzeko betekizunak beteta, berehalako arreta, zaintza, egoitzako abegia edo tutoretza eteteko ebazpenak errekurritzen dituzten pertsonen doako laguntza juridikoa emango zaie.

Konstituzio Auzitegiak defentsarako eskubideari buruzko zenbait epai eman ditu. 2008ko abenduaren 22an, auzitegi horrek defentsarako eskubideari eragin dioten epai bi eman zituen. Lehenengoak -3321-2007 babes-errekurtsua-, elkarreak adingabe bati eragiten dion administrazio jarduketa bat aurkaratzeko duen eskubidea onartu du, hark legezko interesa frogatzen duenean, hots, elkarrearen xedeen artean gizarte bazterketako edozein motatako arazoak dauzkaten pertsonak, batez ere adingabeak eta gazteak, gizarteratzea eta sustatzea lortzea aurreikusi denean, haien oinarrizko eskubideak eta askatasunak zaintzeko egokitzat jotzen dituzten ekintza judizialak egitea barne.

Bigarren epaiak -3319-2007 babes-errekurtsua-, adingabeek, euren eremu pertsonalari eragingo dioten neurriak hartzerakoan, justizia organoak entzunak edo miatuak izateko duten eskubidea onartu du. Hortaz, adierazi duenez, euren iritzia eratzeko egoeran dauden adingabeek entzunak izateko eskubidea daukate eragiten



dien prozedura judizial edo administratibo orotan, zuzenean edo ordezkari baten edo organo egoki baten bitartez.

Konstituzio Auzitegiak beste epai batzuetara eta indarreko ordenamendu juridikora jo du bere epaian. Hala, adierazi duenez, eskubide hori Konstituzio Auzitegiaren lehenagoko zenbait epaitan onartu da: Azaroaren 25eko 221/2002 eta urtarrilaren 30eko 17/2006 epaiak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan, 1989ko azaroaren 20koan, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15ko 11/96 Lege Organikoan eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean.

Aurrerago, honakoa ebatzi du: *“gaitasun prozesalaren arauketaren interpretazioa eta aplikazioa, jurisdikzioa eskuratzeko oinarri bat denez gero, pro actione printzipioak zuzenduta egin behar dute, eta Konstituzioaren arabera zorrotza eta neurrigabea ez den eta garrantzi handiko interesak sakrifikatzen ez dituen erabakia hartzeko egondako inguruabarrak haztatzeko eska daiteke. Interes horien artean, zalantzarik gabe, eta arestian adierazi denez, gaitasun eta heldutasun nahikoak dituen adingabe orok auzibidean bere eremu pertsonalari eragingo dioten neurriak hartzerakoan entzuna izateko duen eskubidea dago, Auzitegi honek berriz adierazi baitu Espainiako Konstituzioko 24.1 artikulua edukiaren baitan dagoela hori. Hala, arrazoi handiagoz, eta kasu askotan oinarri logikoa denez gero, Espainiako Konstituzioko 24.1 artikulua funtsezko edukiaren baitan dago gaitasun eta heldutasun nahikoak dituen adingabe orori edozein jurisdikzio ordenatuko justizia organoei bere eremu pertsonalari eragingo dioten interesen defentsa eskatzea, baita bere legezko ordezkari egiten dutenen gogoaren kontra ere”.*

Epai horien irismena garrantzitsua da, adingabeen defentsarako eskubidea onartu dutelako. Gogora dezagun askotan pertsona horiek daukaten pasaporteak adingabeak direla dioela, adina zehazteko dekretuak adinduna dela adierazi arren.

Bakarrik dauden adingabe/gazteek auzibidean eragingo dieten erabakien aurka defendatu beharra dute eta, beraz, adierazi dugunez, adinduna ala adingabea den erabakitzeke prozeduran abokatuen laguntzak izan behar dute. Eskubide hori ondo erabili ahal izateko<sup>28</sup> abegi prozesuaren fase guztietan lehenago jakinarazi behar

---

<sup>28</sup>Bakarrik dauden atzerritar adingabeen defentsarako eskubideari buruzko beste txosten batzuk egin dira, hala nola Herritarren Defendatzailearen *Informe sobre Asistencia Jurídica a los extranjeros en España* izenekoa (2005); halaber, herritarren defentsa bulegoek 2006an administrazioek bakarrik dauden adingabeei buruz dituzten erantzukizunei buruz egindako Adierazpenean ere aipatu zen; Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiak ere aipatu zuen, 2007ko urtarrilaren 19ko erabakian bakarrik dauden atzerritar adingabeen laguntza juridikoari buruz egin zuten gomendioan. Haietan guztietan adierazi zen adingabeek administrazioarekiko independentea den laguntza juridikoa -hala nola elkargoaren ofiziozko txanda- jaso behar luketela, administrazio edo justizia prozedurak haien interes gorena kontuan hartuta egiten direla bermatzeko. Bestalde, Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordearen bakarrik eta jatorrizko herritik kanpo euren familiagandik bananduta dauden adingabeentzako tratuari buruzko 6. Oharbidetza Nagusia (2005), Konbentzioko 12. artikuluan xedatutako entzuna izateko eskubideari buruz hitz eginda, honakoa jaso zen: *“euren eskubideei buruzko beharrezko informazio guztia eduki ahal izateko; informazio hori adingabearen heldutasunaren eta ulermen mailaren arabera emango da. Parte hartzea komunikazio fidagarriaren arabera denez gero, Beharrezkoa bada interpretazioa emango da fase guztietan”*; bestalde, UNHCR-ACNUR eta Save



dira eskubideak eta betebeharrak **eta babes erakundeak adingabe/gazteak aurkeztutako zaintza edo egoitzako abegia edo tutoretza eskaera ebazten duen edo ofizioz hasitako babes edo berehalako arretako espedientea amaitzen duen ebazpena eman behar du**<sup>29</sup>. Edonola ere, ez dago abokatuen laguntza izendatu beharra ezarri duen xedapenik, erabaki horrek pertsona horien bizitzan ondorio hain garrantzitsuak dauzkanean.

Adina zehazteko dekretuaren ondoren adingabe/gazte horiek babes baliabideetatik at egongo lirateke, kasu askotan pasaporteak adingabea dela adierazi arren. Agiri hori dela-eta, ez daukate herri-administrazioekin harremanik izaterik, legezko tutorearen laguntza eskatzen delako. Egoera paradoxiko hori zigor bideak<sup>30</sup> agirien egiazkotasuna zalantzan jarri gabe edo nortasuna eta adina ezartzeko jatorrizko herriko agintaritzei dauzkaten datuen egiazkotasunaz kontsultatu gabe adingabeak direla dioten pasaporteak dauzkaten pertsonen adina zehazteko azterketak egitearen ondorio da. Agiri horrek pertsona identifikatzea ahalbidetzen du eta, hortaz, herri-administrazioekin harremanak izatea, erroldan erregistratzeko eskera egitea, bizileku-baimena eskatzea, etab. ere ahalbidetzen ditu. Adingabea dela dioen pasaportea izateak jarduketa eta negozio juridikoak eraginkortasunez egiteko jarduteko osoko gaitasuna izatea galarazten dio.

Defentsarako eskubideari esker, adingabe/gazte horrek egindako osasun azterketen emaitzaren dudarik gabeko ezagupena edukiko luke, bere alegazioak entzungo lizkiokete eta babes erakundeak dagokion fiskaltzaren adina zehazteko dekretuan oinarrituta hartutako erabakia errekurritzeko eskubidearen berri emango litzaiokete. Informazio hori banaka komunikatu behar litzateke, eta hezkuntza arreta egokiz, bere etorkizun hurbilean ekarriko dizkion ondorioengatik; izan ere, a priori bere oinarrituko eta hezkuntzako premiak bete gabe geratuko dira.

Babes erakundeak **egoitza abegia, berehalako arreta, zaintza edo tutoretza... eteteko eman behar duen ebazpenak** ondo arrazoituta egon behar du eta gazteari haren berri eman eta jakinarazi behar dio errekurri daitekeela eta errekurtsioa zein organoren aurrean aurkeztu behar duen<sup>31</sup> eta hura jartzeko zer epe daukan; halaber,

---

The children-en gomendio eta (2006), eta UNICEFen 2009ko *“Realidad Jurídica y social de los menores extranjeros en España”* txostenean honakoa jaso zen: *“Eremu juridikoan adingabeari eragiten dioten gai guztietarako abokatuen laguntzarako eskubidea berariaz arautu eta bermatu behar da. Fiskaltzak esku hartzen badu ere, abokatuen laguntza hori eman behar da, haien interesen eta herri-administrazioaren artean sortzen diren gatazketatik. Abokatuen laguntza horrek tratu pertsonalagoa eta bere eskubideak defendatzeko bermea eman dizkio”*. Azkenik, Herritarren Defendatzailearen *“¿Menores o Adultos? Procedimientos para determinar la edad”* txostena aipatu behar dugu.

<sup>29</sup> Erakunde honen laguntza izan zuen [Adingabeak edo atzerritarak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe atzerritaren gainekoa](#) izeneko azterlanean, 2006 eta 2007 urteetan atzerritar adingabeen espedienteetan jasotako lagina aztertu ondoren, txosten batzuek ikertzen ari ziren aldagaiei dagokienez zeukaten informaziorik eza azpimarratu zen, eta emaitzak lortzea eragotzi zuen horrek.

<sup>30</sup> Ikus 14. oharra.

<sup>31</sup> Auzitegi Goreneko eskuduntza gatazketarako Sala bereziaren 2011ko apirilaren 15eko 16/2011 autoaren arabera: *“Auzitegi zibilar dagokio babes erakundearen iritzia zuzena dela egiaztatzea; izan ere, epaitu interesdunak eskatu du, adingabea izanik, dagokion tutoretza*



doako laguntza juridikorako eta ofiziozko abokatua izendatzeko duen eskubidearen eta eskabidea aurkez dezakeen orientabide juridikoaren zerbitzuaren helbidearen berri ere eman behar dio.

Arrazoibidea adina zehazteko dekretuari buruzkoa izan behar du, ezin baita tutoretza eten baimenik gabe alde egiteagatik. 2009ko azaroaren 5 eta 6an Estatuko Fiskaltza Nagusiko adingabeen ordezkariak Leonen egindako jardunaldietako ondorioetan honakoa adierazi zen: *"Funtsezkoa da batzuetan atzemandako praktika, zeinen arabera, atzerritar adingabe batek babez zentrotik ihes egiten duenean, erakunde publikoak tutoretza iraungitzat jotzeko ebazpena ematen baitu, erauztea. Tutoretza Kode Zibilean xedatutako zioengatik baino ezin da iraungiarazi; hortaz, garai batean tutoretza bere gain hartu zuen erkidegoak hura burutzen jarraitu behar du, adingabea beste erkidego batean aurkituko balute ere, erkidegoen arteko hitzarmenen bidez beste erakunde publiko batean eskuordetzearen bidezko zaintza egiteko aukera kaltetu gabe. Horregatik, ondorioztatzen da bakarrik dauden atzerritar adingabeak baimenik gabe zentroetatik alde egitea poliziaren aurrean salatu behar dela, eta espedienteak zabalik iraun behar duela adingabea aurkitu eta ondoren erkidegoen arteko hitzarmena egin arte, harekin jarraitu beharreko babes jarduketari dagokionez".*

Jaso ditugun kexa batzuetan ez zen jakinarazi berehalako arreta, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza eteteko ebazpena, baina uneotan gure balorazioa da, salbuespenak salbuespen, haiek hartzen eta dagozkien pertsonen jakinarazi ari zaizkiela.

#### **IV. Adin-nagusitasuna erabaki ondoren lagun egiteko edo bideratze egokia egiteko premia**

Arartekoak askotan adierazi du garrantzitsua dela adin-nagusitasunera iritsi ondoren egoitza baliabideetatik irtetearekin batera herri-administrazioen **jarraipena eta laguntza** edukitzea, oso gazte bakarrik eta erreferentziazko heldurik gabe dauden gazte horien ahultasuna dela-eta. Lagun egite horrek gazte horien bizitza erabaki dezake; izan ere, hasitako prestakuntza egiten jarraitzea eta bizitza heldu arduratsua egiteko urratsak -besteak beste, prestakuntza eta lanbide ibilbidea bilatzea- ematea ahalbidetuko ditu. Kasu horretan, bestalde, erantsi behar da haien jatorrizko herrikoaz beste kultura batean eta gizarte eta administrazio egitura duen gizarte batean integratu behar dutela. Hala, aspaldi errepikatu dugu **irteera eta emantzipazio programak indartu** behar direla, pixkanakako autonomiako programak argi eta garbi aipatuz.

Gure erkidegoan foru aldundiaren jardunbide oso onak ezagutu dira, eta haiei esker gazte askok etorkizun duina daukate. Programa horiek ez diete eragin babes erakundeekin harremanen bat izan duten atzerritar gazte guztiei, baina

---

eman behar zaiola eta, hura, adingabea ez dela frogatu ondoren baino ezin da ukatu, babesa ukatzen edo baliogabetzen duen ebazpenaren kontrol judizial zibila eginez".





gomendagarria litzateke gazte gehiagori iristea. Bestalde, garatutako programek zenbait eduki eta estaldura maila izan dituzte, lurralde historikoaren arabera. Bestalde, 2012an foru aldundietako haur eta nerabeen babes zerbitzu espezializatuen eta udal, foru eta autonomia mailako gizarteratze, laneratze eta enplegu zerbitzuen arteko lankidetzeta eta koordinazio protokoloa hitzartu zen. Protokolo horrek honakoak aipatu ditu: lurralde historiko bakoitzeko programen estaldura parekatu beharra, haurren zerbitzuen eta gizarteratze zerbitzuen arteko koordinazioaren garrantzia eta laguntza programak zabaldu beharra. Adingabeak zirelakoan abegi zentroetan arreta eman zaien eta haien nortasuna eta adina ezagutu edo zehazterakoan sartu ziren unean adindunak gertatu diren gazteak kanpoan utzi ditu berariaz, zein ere den gertakari bien artean igarotako denbora, hots, gomendio honen xede den taldearen zati handi bat. Ez gatoz bat kanporatze horrekin, zio bi direla-eta: arestian adina zehazteko prozesuei buruz emandako arrazoiak eta gazte horiek berariazko laguntza behar dutelako, gutxienez, gizarteratze zerbitzuen aldetik. Gazte horiek bideratze egokia izan behar lukete, zerbitzu horiekin koordinatu ahal izateko.

Arartekoak emantzipazio programei edo herri-administrazioek adin-nagusitasunera iritsi diren gazteei emandako arretari lotutako kexak jaso ditu, bai Fiskaltzaren adina zehazteko dekretuaren bidez adindunak direla erabaki den kasuetan, bai egoitza abegiko baliabide batean egonaldia egin ondoren adin-nagusitasunera iritsi diren kasuetan.

Gizarte egoera ahulean dauden 18 urtez gorakoentzat aurreikusitako arreta eta zerbitzuei eta inguruabar bereziengatik bizileku-baimenaren eskaerarako gomendioa emateari uko egiteari buruzkoak izan dira kexa horiek. Azken kasu horri dagokionez, epe labur batez gazte babesgabeen egoitza baliabideetan abegia egin zitzairen gazteak ziren eta, hori dela-eta, 2/2009 Lege Organikoa erreformatu ondoren, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak onartutako Espainiako atzeritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegiko 198. artikuluan xedatutako gomendioa ukatu zitzairen. *"1. Adingabeen babes zerbitzu batek adingabe horien legezko tutoretza, zaintza, behin-behineko babesa edo zaingoa izan badu, [Arautegiko 196. artikuluan](#) xedatutako bizileku-baimena lortu gabe adin-nagusitasunera iritsi badira eta erakunde horrek euren gizarteratzea errazteko programatutako prestakuntza ekintzetan eta jardueretan egokiro parte hartu badute, inguruabar bereziengatik behin-behineko bizileku-baimena ematea gomendatu ahalko du hark"*. Legeak (Espainiako atzeritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 35.9 art.) xedatu duenez, ondore horietarako, erakunde publiko eskudunek gizarteratzeko ahaleginari, egin litzaketen prestakuntza edo ikasketen jarraipenari eta egiazko edo balizko laneratzeari buruz aurkez litzaketen aldeko txostenak kontuan hartu beharko dira.

Arestiko gomendioa ukatzeko zioa egonaldia behar bezain luzea ez izatea zen. Arartekoaren iritziz, Foru Aldundiak legezketasunaren printzipioa betez jardun behar du eta ezin da eskubideen interpretazio murriztailerik egin. Arautegiko 198. artikulua babes zerbitzuak *gomendatu ahalko* duela (hots, hautazkoa dela) badio



ere, egia da, halaber, artikuluko horretan eta hark aipatu 197. artikuluko 3. idatzatiazian ez dela inon xedatu pertsona bat abegian edo tutoretza pean egon den denborak adierazten duenik prestakuntza baliabideen baliatze maila. Denbora datu bat gehiago baino ez da, prestakuntzan bertaratzea eta jarraitzea, prestatzeko ahalegina, errendimendu akademikoa, etab. bezalako beste batzuekin batera. Izan ere, gerta daiteke tutoretzapean luzaroan egotea baina lege xedapena ez betetzea programatutako prestakuntza ekintzak eta jarduerak baliatu ez direlako eta parte hartzerik egon ez delako. Azken batean, egindako esfortzua baloratu behar da, eta lege xedapenari ezin zaio bestelako edukirik eman. Gobernu Ordezkariordezari dagokio bizileku-baimenaren eskabidea ebatzea eta horretarako adingabeen babes zerbitzuak eta beste organo eta erakunde batzuek emandako informazioa erabil dezake<sup>32</sup>.

Hori dela-eta, arrazoizkoa lirudike gazte horiek euren adin-nagusitasunera iritsi arte abegia jaso duten adingabeen babes zerbitzuak alderdi aipagarrien eta objektibagarriagoen (adibidez, egondako denbora, prestakuntza jarduerak eta parte hartu duen beste edozein jarduera mota) deskribapen txostena egiteak, azkenean aldeko edo kontrako jarrera hartuz, baina **arrazoituta** beti ere. Hala, ordezkariordezaren esku uzten da pertsona horrengan bildutako inguruabarren eta haren gizarteratze mailaren balorazio orokorra egitea.

Gazte horientzako zerbitzu eta baliabideei dagokienez, Legeko 35. artikulua honakoa ere xedatu du: *"Autonomia erkidegoek adingabeak adin-nagusitasunera iristen direnean lan merkatuan sartzea ahalbidetzeko behar diren politikak garatuko dituzte"*. Hortaz, gazte horientzako arretak helburu hori dauka, **eta adin-nagusitasunera iritsi ondoren ere jarrai dezake**, gure gizartean gazteen laneratzea 18 urteetatik harago atzeratu ohi baita. Gure erkidegoan, Bizkai eta Gipuzkoari dagokienez, foru aldundiek eurek ematen dute arreta hori, gizarte bazterketako

---

<sup>32</sup> Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 2010eko otsailaren 9ko 25/2010 Epaia: *"4/2000 LOko 35.9 artikulua araber, adin-nagusitasunera iritsitakoan behin-behineko bizileku-baimena berritzea onetsi edo ezesterakoan, ondore horietarako, erakunde publiko eskudunek atzerritar adingabeen gizarteratzeko ahaleginari, prestakuntza edo ikasketen jarraipenari eta egiazko edo balizko laneratzeari buruz aurkez litzaketen aldeko txostenak kontuan hartu behar badira ere, egia da, halaber, Estatuko Abokatutzak aipatu Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostena errekurtsogileak harreman pertsonalen eremuan izandako jarrera gatazkatsua deskribatzea mugatu dela eta, Gipuzkoako Gurutze Gorriaren eta Donostiako Lanbide Hastapeneko Zentroaren txostenetan, ordea, prestakuntza eremuari dagokionez, jokabide oso positiboa aipatu dutela, adingabe zenean ez ezik, baita ondoren ere. Zentzu horretan, ezin dugu ahaztu Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostenak errekurtsogilea adingabea izan den aldia baino ez duela jaso, harreman pertsonaletan jokabide negatiboaren berri emanez, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriaren eta Donostiako Lanbide Hastapeneko Zentroaren txostenek ere jokabide hori jaso dutela, baino beste era batera. Zentzu horretan, azken txostenok sakonagoak dira, errekurtsogilearen jokabidearen berri emateko zioen aipamen hutsa egin beharrean, jokabide horren itxurazko zioak ere aipatu baitituzte, eta hala, auzi-jartzailearen herabetasuna eta egoera pertsonalari eta Marokoko familiaren egoerari buruzko kezka aipatu dute eta, horri, gazteleraz zein arabieraz duen alfabetatze maila urria erantsi diote"*.



egoeran dauden helduentzako zerbitzuetan; Gasteizen, aldiz, udalak berak ematen die arreta gazte horiei.

Pertsona gazteak dira eta ez daukate euren baliabide nahikorik, laguntzarik edo erreferentziatzeko pertsona heldurik eta autonomia eskuratzeko prozesuan lagun egitea behar dute. Ahultasun izugarriko une batean -pertsona heldu bihurtzeko unean, alegia-, emandako erantzun egokiak eragin itzela izango du gizarteratzeko eta laneratzeko aukeretan<sup>33</sup>.

Gerta daiteke, eta gertatu egiten da, aldi nolabait luzeetan gizarteratze helburuetan aurrera egitea eta honakoek hori arriskuan jartzea: administrazio estatusaren aldaketak (18 urte bete eta babesten den adingabea izatetik -helduen mendekobere bizitza baliabide eta irizpideekin administratzeko gai den heldu autonomo izatera igarotzea); premia inguruabar edo halabeharretako aldaketa batek, eta horri lotuta, beste sail, instituzio edo erakunde hornitzaile batzuen esku geratzea; etab.

Hori dela-eta, **banakako irteera planarekin** lan egin behar da, kasu guztietan, zein ere diren lehenago egondako denbora eta auzibidean errekurrituta egoteagatik eztabaidan egon daitezkeen adinari lotutako kontuak. Jatorrizko programan ordura arte egindako lanak (eta, beraz, egonaldiaren iraupenak) garrantzia dute, baina planaren "pertsonalizazioak", hain zuzen ere, pertsona bakoitzaren premia eta ezaugarri bereziei erantzungo die. Eta ezinbestean baliabideen, zerbitzuen, sailen eta erakundeen koordinazioa eta elkarlana eskatzen ditu. Horrela baino ezingo da bermatu "arreta etengabea" eta sektore eta sailetan gehiegi bereizitako funtzionamenduak gazte horien autonomia eta gizarteratze prozesuak eten, atzeratu edo oztopatzea galarazi. Abiapuntuko programako zein jarraipenerako aurreikusitako hartako edo haietako profesionalen parte hartzea ezinbestekoa da denbora etenik gabe pertsonaren ostaturia, mantenua eta gainerako oinarrizko premien estaldura bermatzeko. Eta norberaren autonomiaz pixkanaka jabetzeko esparru horretan oinarrizko premien estaldura, ostaturia eta mantenua bermatzeko, ezinbestekoa da ostatuaren, elikaduraren, arroparen, medizinen, eskola edo lan materialaren hezkuntza edo lan zentrorako garraioaren... "merkatuko" kostua ordaintzeko gutxieneko baliabide ekonomikoak edukitzea. Bestalde, gutxieneko baliabide ekonomiko horien zenbatekoak eragin handia dauka gazte horien administrazio egoeran. Zehazki, bizileku-baimena berritzeko (edo ez berritzeko) edo hura inguruabar bereziengatik eskuratzeko aukeraz ari gara. Bizileku-baimena

---

<sup>33</sup> Europako Young People from a Public care Background: Pathways to Education in Europe (YIPPEE) proiektuaren zenbait ondorio aipatuko ditugu. Haren xedea Europar Batasuneko bost herritan (Danimarka, Hungaria, Espainia, Suedia eta Erresuma Batua) tutoretzapetik ateratako gazteen hezkuntza ibilbideak miatzea eta derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan gazte horietatik ahalik eta gehienei hezkuntza sisteman atxikitze bideak ikertzea zen. Ikerketa 2008 eta 2010 artean egin zen. Azpimarratu nahi ditugun ondorioen artean hezkuntza aukeren desberdintasunari aurre egiteko eskolako emaitzak hobetzearen garrantzia dago; izan ere, pertsona horiek uste ohi den baino resiliencia eta arrakasta ahalmen handiagoak daukate. Pertsona horien hezkuntza ibilbidea zapuztuta gertatzen da, euren bizitzetako zenbait une lohitu dituzten hainbat gorabehera eta esperientzia traumatiko direla-eta, eta, beraz, atzerapen hori orekatzeko laguntza orokorra behar dute.



berritzeko edo eskuratzeko funtsezko une batean baliabide ekonomikoak eskatutako adierazleen (IPREM) azpitik txikiagotzeak administrazio irregulartasuneko egoeran eta "irteerako laukian" jartzen du berriz pertsona hori, eta ordura arte gizarteratze prozesuan eta migrazio proiektuaren finkatzean erdietsitako aurrerapen guztiak zapuzten ditu. Ez dauka zentzurik ordura arte jasotako laguntza guztia alferreko bihurtzea bizileku-baimena berritu ezinagatik, horrek lana eskuratzeko galarazten baitie.

Baliabideak jasotzeko moduak ere axola du, bai ikuspegi ekonomiko hutsetik, bai hezkuntzaren ikuspegitik. Aipatu gutxieneko baliabide ekonomikoekin batera, gazte horien norberaren hazkuntza eta gizarteratze prozesuan funtsezko beste elementu bat gaikuntza da, bai norberarena, bai lanbidekoa, bai gizarterakoa. Zentzu horretan, ezinbestekoa da behar adinako hazkuntza gaitasuna eta lanbide kualifikazioa eskuratzeko laguntzea; horretarako, gazte horien ezaugarri bereziak aintzat hartu eta erritmoak eta formatuak hezkuntza eremuko gainerako aniztasuneko egoerei erantzuten zaien bezala egokitu behar dira. Gazte horiek parte hatzen zuten gizarte, hezkuntza eta prestakuntza programak kentzea edo murriztea, beste batzuekin batera, Gasteizko Osabidezko Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntzarako Partzuergoa deuseztatzea bezala, ez bide doa norabide horretan eta beste oztopo bat da gizarteratzeko bidean.

Azkenik, funtsezkoa da prozesuan erreferentziatzeko lagun egite egonkorra egotea. Lagun egitearen intentsitateak beheranzko logikari darraio, baina bizitza ez doa beti modu hain linealean eta gerta daiteke une batzuetan aurrekoetan baino laguntza handiagoak behar izatea. Zeregin horretan oso interesgarria da gizarte sarearekiko elkarlana, gizarteratuta egotea komunitatearekin loturak eta harremanak edukitzeari ere lotuta dagoelako, eta eginkizun horretarako gizarte erakundeak -euren izaeragatik- administrazioa baino askoz prestatuago daude. Norabide berean lan egiteak onurak baino ez dizkiote ekarriko pertsonen.

Horregatik guztiagatik, erakunde honen aburuz, arestiko analisia dela eta, honako gomendioa egin behar diegu Eusko Jaurlaritzako honako sailei: Enplegu eta Gizarte Politikako Sailari, Herri Administrazio eta Justizia Sailari, Osasun Sailari, Segurtasun Sailari; baita autonomia erkidegoko foru aldundiei eta udalei ere:

## **GOMENDIO OROKORRA:**

### **Beharrezko koordinazioaren eta elkarlanaren garrantziari dagokionez:**

1. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Herriko Autonomia Erkidego osoan jarduketako protokolo komunaren prestaketa koordinatu behar luke, lurralde historiko bakoitzean zerbitzuen kokapenaren arabera behar diren aldaketak eginez, baina irizpide, berme eta eskubide berberak sartuz. Protokolo horretan Fiskaltzak, Gobernuaren ordezkariordetzek, polizia kidegoek, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, Herri Administrazio eta



Justizia Sailak, Osasun Sailak, eta foru aldundietako adingabeen babes zerbitzuek parte hartu eta haien funtzioak eta jarduketak zehaztu behar dira.

**Bermeak eta eskubideak betetzeari dagokionez:**

2. Edozein eragile publiko edo gizarte eragilek Babesgabetasuneko egoeran dagoen adingabe edo balizko adingabe bat dagoela atzematen duen kasu guztietan, foru aldundietan adingabeak babesteko eskumena duten zerbitzuen esku jartzea.
3. Foru aldundiek, Fiskaltzari adina zehazteko osasun azterketak egiteko eskatu aurretik, pasaporte baten edukia faltsua, okerra edo iruzurrez egina izateko arrazoizko zantzuak daudela arrazoituta argudiatzea.
4. Adina zehazteko osasun azterketak egiteko eskaera egin aurretik, bakarrik dauden atzerritar adingabeen erregistroa kontsultatzea eta, pertsonaren agiriak edukiz gero, bide diplomatikora jotzea jatorrizko herriko agintaritzek datuen egiazkotasuna ziurta dezaten, batez ere Espainiak hitzarmena sinatu duen herrien kasuetan, hala nola Marokoren kasuan.
5. Adina zehazteko prozesuetan auzitegi-medikuntzako erakundeen "Adinaren auzitegi-kalkulua egiteko metodoei buruzko gomendioen dokumentua" izeneko testuko gomendioak betetzea eta haietan guztietan auzitegi-medikuntzako euskal erakundeak esku hartzea. Halaber, ebaluazioa halako azterketetan adituak diren medikuek egitea.
6. Dagokion asingabe/gazteari, banaka eta hezkuntza arreta egokiz, foru aldundiak, Fiskaltzaren adina zehazteko dekretuan oinarrituta, berehalako arreta, zaintza, egoitza abegia edo tutoretza eteteko hartutako ebazpenaren eta hura errekurritzeko eskubidearen, errekurtsioa aurkeztu behar dion organoaren eta hura jartzeko epearen berri ematea.

**Babes baliabideetatik irteten direnean gizarte lagun egite edota bideratze egokiak duen garrantziari dagokionez:**

7. Bizileku-baimena lortu gabe adin-nagusitasunera iritsi den kasuetan, babes zerbitzu batek tutoretza, zaintza, behin-behineko babesa edo zaingoa izan duenean, inguruabar bereziengatik bizileku-baimena emateko gomendioa egiterakoan, foru aldundiak prestakuntza baliabideen baliatze maila kontuan hartzea, zein ere den pertsona hori abegian emandako denbora. Txostenak prestakuntza edo beste edozein motatako baliabideen baliatze maila deskribatu behar luke, azkenean alde edo aurka eginez, baina arrazoituta beti ere.
8. Banakako irteera plana egitea, kasu guztietan, zein ere den lehenago emandako denbora eta zein ere diren auzibidean errekurrituta egoteagatik eztabaidan egon litezkeen adinari buruzko kontuak, eta egoitzako babes baliabideetatik irtetean herri-administrazio eskudunen jarraipena eta laguntza egotea.





9. Babes baliabideetatik irteteen gazte horien gizarte-ahultasuna kontuan hartzea, oinarrizko premiak estaltzeari begira eta inguruabar bereziengatik bizileku-baimena eskuratzeko edo hura berritzeko behar diren betekizunak betetzeko.
  
10. Haurren zerbitzuak gizarteratze eta laneratze zerbitzuekin koordinatzea, gazte horien gizarteratzea eta lan gaikuntza bilatzen duten laguntza eta emantzipazio programak erraztu eta sendotzeko, baita hasita duten lan prestakuntzari jarraitzea ahalbidetzeko, erakundeek egindako ahaleginek haien erabateko gizarteratzea eta laneratzea lor ditzaten.

